


HARI GORRITIK TIRAKA

Herri Gaztedi mugimenduaren esperientzia
60ko eta 70eko hamarkadetan Zumaian

Aitor Tena Eizagirre



Eskerrak

Arantxa, Arri, Ina, Iosu, Jexux, Joanito, Karmentxu, Luix Mari eta Patxiri zuen testigantzen bidez Zumaiaiko historiaren hari gorria eten ez dadin laguntzeagatik. Tere eta Anttoni inguruan hautsak harrotzeagatik, kafe artean izandako elkarrizketengatik eta hartutako lan guztiagatik. Karmeleri deialdiaren berri eman eta parte hartzera animatzeagatik. Juan Joxe Agirre eta Miren Barandiarani Lazkaoko Beneditarren Fundazioko ateak zabaltu izanagatik eta eskainitako laguntzagatik. Paulo Iztuetari argitutako zalantzenagatik. Militantziako burkideei, zuek ematen baitizkidazue aurrera jarraitzeko indarra, mundu berri baten alde lan egiteko grina, bizi dugun krisi testuinguruan hedatzen ari den gorrotoaren inpotentzia gainditu eta antolakuntzaren potentzia eraikitzeko kemena, miseria garaitan borroka ehuntzekoa. Nire gurasoei klase kontzientzia transmititu izanagatik eta prozesuan zehar eskainitako babesagatik.

Eskerrik asko, bihotzez.

Ondorengo ikerketa Zumaiaiko Udalak sustatutako *Gazte ekimenak bultzatzeko dirulaguntzen* deialdiari esker ondu da.

Izenburua: Hari gorritik tiraka. Herri Gaztedi mugimenduaren esperientzia 60ko eta 70eko hamarkadetan Zumaian.

Egilea: Aitor Tena Eizagirre.

Argitaratze urtea: 2025eko urria.

Ediciones Extáticas argitaletxe militantekeo kideek dioten moduan, liburuxka honetako testuek ez dute *ez copyright, ez copyleft, ez jabetza intelektualik. Denona, denontzat.*

Aurkibidea

1. Sar hitza 7

2. Testuingurua 9

2.1. Euskal Herria, belaunaldi berri baten agertoki 9

2.2. Zumaia, jauntxokeriaren ispilu 16

2.3. Eliza, leihoak zabaltzen lagundu zuten haize berriak 19

3. Herri Gaztediren iritsiera eta bilakaera Zumaian 27

3.1. Herri Gaztediren aurrekariak 27

3.2. Baserri Gazteditik Herri Gaztedira 32

3.3. Herri Gaztediren oinarriak 35

3.4. Antolaketa eredua 47

3.5. Auzi konkretuen gaineko posizioa eta mugimenduaren jarduna 50

4. Heziketa mugimendutik beste plataforma batzuetara 60

5. Mugimenduaren desagitea eta honen legatua 63

5.1. Desagitea bultza zuten arrazoiak 63

5.2. Errelatoaren transmisioa gaur arte 63

5.3. Herri Gaztedik utzitako legatua 64

6. Agurra 67

7. Iturri bibliografikoak 68

1. Sar hitza

Urtebete inguru igaro da Herri Gaztedi mugimenduaren berri izan nuela lehen aldiz. Beno, agian lehenago ere entzuna edo irakurria nuen zer bait, baina ez nuen inoiz arreta jarri horretan. Egun hartan, ordea, mahai baten bueltan belaunaldi ezberdinetako kideak *bataillitak* kontatzen —eta entzuten— ari ginela, mugimendu hortako ekintzaile¹ izandako emakume batek horri buruz kontatutako errelatoak harrapatu egin ninduen, eta ordutik informazioa biltzeari ekin nion —edo, gutxienez, horretan ahalegindu nintzen, ez baitzegoen ia ezer eskuragarri lehen begiratuan behintzat. Batez ere, atentzioa deitu zidana izan zen zer nolako indarrarekin transmititzen zituen bere bizipenak: Vatikanoko II. Kontzilioaren influentzia bere bizitzan, Herri Gaztediren parte izatera bultza zuten arrazoiak, bertako kide izateak bere etorkizuneko militantzian —edo militantzietan— edukitako eragina, etab.

Gogoan dut Andoni Egaña bertsolariak, *Berria* egunkarian argitaratutako zutabe batean, lagun batekin izandako elkarrizketa jasotzen zuela, Elizaren eta iraultzaren arteko loturaz hausnartzen: “Nola egingo diagu ba

egiazko iraultzarik, gu marxismoa lokal parrokialetan ikasiak gaituk eta?”. Belaunaldi horren aurretik, ordea, izan zen beste generazio bat Herri Gaztedin hartu zuena iraultza antolatzekeo beharraren kontzientzia, Elizaren baitan jaiotako mugimendu batean, Vatikanoko II. Kontzilioaren testuinguruan. Esaterako, Tomas Etxabe zumaiarrak, 1976ko martxo odoltsuan Gasteizko langile mugimenduaren gidarietako bat izan zenak, 2021 urtean, *Argia* aldizkarian, aipatzen zuen Herri Gaztedin egin zela, egin zirela marxista garai hartan mugimendua osatzen zuten *kuadrilla*. Gisa horretako bizipenak eta testigantzak, hilabete hauetan zehar garaiko hainbat militanteren ahotik entzun ahal izan ditudanak, orain arte ez zeuden modu sakon batean jasota eta ordenatuta. Hori dela eta, Zumaiako Udalak sustatutako *Gazte ekimenak bultzatzeko dirulaguntzen* deialdira aurkeztutako proiektu honen bidez, hain zuzen ere, gure herriko historiaren haritik tiratzen jarraitzea izan dut xede, eteteko arriskuan dagoen hari gorritik, Zumaiako langile mugimenduaren historian sakontzeko, memoria historikoa berreskuratzeko eta egungo gazteei garaiko bizipenen

¹ Herri Gaztedi mugimenduko kide edo militante ziren pertsonak deskribatzeko erabiltzen zen *ekintzaile* terminoa.

berri emateko prozesuan ekarpen xumea egin dezakeelakoan.

Era berean, argi utzi nahi nuke lan honen xedea ez dela akademikoa, baizik eta dibulгатiboa, militante sozialista baten ikuspegia edo begirada oinarri duena. Imanol Satrustegi historialari nafarrak 2023. urtean, ***Beste mundu bat nahi genuen*** liburua argitaratu berritan, zioen oso pozik litzatekeela ikerlan hori ez balitz geratuko soilik akademiaren esparruan, inspirazio iturri izango balitz hainbat mugimendurentzat eta eztabaidak pizteko balioko balu. Aitortu beharra dut, niretzat behintzat, Satrustegiren liburua izan dela inspirazio iturri, eta gure herriko langile mugimenduaren historian sakontzeko grina edo, Jon Larrabide kideak esango lukeen moduan, *urpekari baten gisara historiaren joanaren itsasoan murgildu eta ezezaguna den hori bilatzen ahalegintzeko gogoa* piztu didala. Eta, hein batean, nik ere, esku artean duzun liburuxka honen bitartez, norabide horretan jarri nahi nuke aletxo, mugimendu iraultzaileentzat baliagarria izan daitekeen, eztabaiden sorreran ekarpena egin dezakeen eta aurrera begirako bidea marrazten lagun diezagukeen bitarteko bat sortuz. Izan ere, iragana ezagutzea —eta ulertzea— ezinbestekoa da oraina konprenitzeko eta, bide batez, etorkizuna egiteko edo, hobe esanda, antolatzeke.

2. Testuingurua

Atal honetan, Herri Gaztedi zein testuingurutan sortu zen aztertuko dut, baita honen sorreran eta garaiko beste antolakunde batzuenan zein faktorek izan zuten eragina ere. Konkretuki, hiru dimentsiotan bereiziko dugu testuinguruaren analisia: Euskal Herria, Zumaia eta Eliza.

2.1. Euskal Herria, belaunaldi berri baten agertoki

1950etik 1960ra bitartean gizarte gatazken baldintzak aldatuz joan ziren, eta, horrekin batera, langileriaren eta oposizio politikoaren ereduak moldatu ziren gizarteko ezaugarri berrietara. Zentzu horretan, esan daiteke 50eko hamarkada mundu baten gainbeheraren lekuko izan zela, denbora berean beste baten sorrerari lekua eman ziona. Mundu berri horren sorrerarekin, *langileria berria* gisa ezagutu izan dena ere loratu zen, bertako langileez eta kanpoko etorkinez osatuta zegoena.

Prozesu horren jarraipen gisara, 60ko hamarkadan euskal historian aurrekaririk ez zuen *aldi iraultzailea* gertatu zen. Urte haietan, *oposiziotalde* deiturikoek etengabe erabiltzen zituzten *iraultza*, *boterehartzea*, *sozialismoa*, *langile boterea*, *autogestioa*, *asamblearismoa*, *nazionalismo iraultzailea* edo *klase-borroka* bezalako terminoak, bai barne-

eztabaidetan bai argitaratzen zituzten testu, manifestu edota komunikatuetan. Garai horretan, Euskal Herria *klase borrokaren esparru autonomo* bilakatu zen.

Gertakari horiek ulertzeko, ezinbestekoa da 50eko hamarkadatik aurrera Espainiako Estatuaren egitura ekonomikoan egon ziren aldaketa esanguratsuak kontuan izatea. Alde batetik, *per capita* errenta nabarmen igo zen. Bestalde, biztanleria aktiboaren banaketa industria- eta zerbitzu-sektoreen alde dekantatzen hasi zen, lehen sektorearen kaltetan. Ildo horretan, nabarmendu behar da Estatuaren propaganda ofizialak ziurtatzen zuela Espainia jada ez zela nagusiki *nekazal herrialde* bat, eta *munduko hamargarren potentzia industrial*a izateko bidean zela.

Justuki, urte horietan Euskal Herrian ere industrializazio prozesu sakon bat gertatu zen, eta kapitalismoak, bere garapenarekin batera, bere kontraesanak sortarazi edo areagotu zituen. Horren aurrean, 50eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, hazkunde ekonomikoak eragindako arazo sozialei aurre egiteko asmoz, langileria protestak eta grebak gero eta ugariago antolatzen hasi zen eta, pixkanaka-pixkanaka, langile mugimendua eta oposizio politikoa berpizten joan zen.

Besteak beste, miseria-egoerak, soldata-murrizketek eta sindikatzeko ezintasunak aldaketa eta gatazka ugari ekarri zituzten lan-arloan, bereziki industria-sektorean. 60ko hamarkadan, Gipuzkoak industria-eraldaketa sakona jasan zuen, eta Espainiako Estatuan errenta handiena zuen probintzia bihurtu zen. Eraldaketa horrek, batez ere, bere ingurune naturalari eragin zion, industria-faktoreek eragindako degradazioa bizi izan baitzuen.

Atzean geratu ziren gerra garaiko azken sindikalistek 1947an eta 1951n antolatutako greba mitikoak, bizi-zein lan-baldintzen hobekuntza zutena jomuga. Oraingo honetan, proletalgo berri batek, neurri batean Espainiako populazio txiroenen exodotik zetorrena, bereziki Extremaduratik, soldata-igoerak, baldintza hobeak eta lan-eskubideak aldarrikatzeko borrokak jarriko zituen martxan.

Orain arte aipatu dugun moduan, langileria berriaren osaketan garrantzia handia izan zuten Espainiako Estatutik iritsi ziren etorkinek. Izan ere, ez dugu ahaztu behar 50eko hamarkadan barne-migrazio handiak hasi zirela Espainiako Estatuan. Prozesu horri esker, burges industrialak soldatak oso motel hazten ziren egoeraz baliatu ziren produkzio-erritmoak bizkortzeko, lan-kostuak handitu gabe. Fenomeno hori, Hego Euskal Herrian presentzia nabarmena izan

zuen, euskal burgesiak erabili egin zuen bere irabaziak handitzeko. Horrela, euskal gizartearen eraldaketa berriari hasiera eman zitzaion, ezaugarri nagusi gisa industrializazioa, proletarizazioa eta etorkinen harrera izango zituen. Horrez gain, *gizarte aurrekapitalisten azken hondarrak* krisi azkar batean sartu ziren.

Horren adibide da, esaterako, 60ko hamarkadan hainbat eta hainbat baserri hustu zirela Gipuzkoan. Adibidez, Joseba Zulaikak aipatzen du 1962 eta 1972 urteen artean Itziar eta Lasturko baserri guztien % 30 hustu zirela. Zifra horiek, dudarik gabe, adierazten dute gizarte tradizionalak bizi izan zituen aldaketa sozioekonomikoak. Baina datuez edo estatistikez haratago, Zulaika berak adierazten du aldaketa horrek *biolentzia dramatiko*a eragin zuela prozesu hori bizi izan zuten pertsonengan. Izan ere, bere hitzetan, botatako, eroritako edo hustutako baserri bakoitzak *egundoko biolentzia sinbolikoa* suposatzen zion baserriko bizibide tradizionalari. Itziarko kasuarekin jarraituz, 1972 urtean 20tik gora baserri bota egin zituzten edo salduak izan ziren egun zumaier ugarik lan egiten duten poligono industrialak eraikitzeko. Gertakari hori, Zulaikak dioenez, *kanpotikako kapitalismo traketsenaren inbasio* bezala sumatu zuen biztanleriak, eta bereziki *herriko gaztedi politizatuak*.

Esan genezake 1950 urtera arte euskal gizarteak lotura estua zuela aurreko hamarkadetakoarekin, baina une horretatik aurrera hazkunde demografiko garbi bat egon zela, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan, garai hartan abertzaletasunarentzat eta langile mugimenduarentzat esanguratsuenak eta garrantzitsuenak ziren lurraldeetan, hain zuzen ere. Gipuzkoak, adibidez, honako biztanleria-hazkunea bizi izan zuen hamarkadaz hamarkada:

- 1930-1940: % 9,73
- 1940-1950: % 12,75
- 1950-1960: % 27,87
- 1960-1970: % 31,92

Azpimarratu eta argitu beharra dago biztanleriaren hazkunde naturala eta Euskal Herriko nekazaritza-eskualdeetatik industria-zentroetarako transferentzia ez direla nahikoa hazkunde demografiko hori azaltzeko. Beharrezkoa da kontuan izatea 1950etik, eta bereziki 1955etik, emigrazio-mugimendu handia hasi zela Espainiako Estatuko landa inguruetatik Hego Euskal Herrira. Zumaiako kasuan, pertsona asko La Serena (Badajoz) eskualdetik edo Avila probintziatik etorri ziren, Hezurbeltzak taldeak zioen moduan, *olibondorik gabeko norte baterantza iparririk gabe,*

maite zutena utzita lurralde arrotz honetara esku hutsik.

Beraz, aurrez esaten ari ginen horretara itzuliz, langile-klase berriaren altxamenduen aurrean patronalak, Guardia Zibilaren eta Polizia Armatuaren laguntzarekin, errepresioa indartu zuen: lantegietan sartzen ziren eta asanbleetan parte hartzen zuten langileak jipoitu, isunez bete eta, muturreko kasuetan, kaleratu egiten zituzten, langileen eta haien familien biziraupena jokoan jarritz, miseriazkoa izan arren soldata baitzen zuten diru-sarrera bakarra. Horrela, mezu garbi bat bidaltzen zien patronalak langileei, Rosa Luxemburgok deskribatzen zuen *gosez hiltzeko askatasunaren* ideia oinarri hartuta: askea zara borroka egiteko, baina horren ondorioak onartu beharko dituzu. Langilearentzat, desjabetutako subjektua den heinean, hau da, bere lan-indarra besterik ez duena, borrokatzeko hautua egiteak bere existentzia propioari uko egitearen arriskua dakar, bestelako diru-sarrerarik ez duen neurrian. Horrekin jokatzeko zuten patronalak: mehatxuekin eta beldurrarekin. Gainera, beste kasu batzuetan, kaleratzeaz haratago, espetxeratu egiten zituzten langileak.

Langileria berri baten sorrerarekin batera, *euskal subjektu iraultzaile berria* ere sortu zen 1960ko hamarkadan, hein handi batean ETAk hauspotu zuena. Subjektu

hura, Zulaikak azaltzen duenez, jada ez zen EAJren subjektua. Aberriaren alde dena emateko prest zegoen belaunaldia zen, orainean aktuatu nahi zuena, iraganera begiratzen geratu nahi ez zuena, ezta geroaren promesei itxaroten ere. Izan ere, Gerra Zibiletik hogeita bost urte igaroak ziren ordurako, eta argi zuten gurasoek jasandako heriotza eta tragedia gainditu behar zirela, eta jada ez zirela aski erromantizismoa eta folklorismoa. Ekintzara igaro behar zen, eta testuinguru horretan sortu zen ETA, baina baita ere bestelako talde edo mugimenduak, liburuxka honetan aztergai dugun Herri Gaztedi kasu. Gainera, bata zein bestea ez ditugu modu isolatuan ulertu behar, kasu askotan Herri Gazteditik ETArak —zein beste antolakunde batzuetara— egin baitzuen salto ekintzaile ugari.

Justuki, ETA erakundeak 1970eko ekainaren 7an argitaratutako komunikatuan, atzera begira, aipatzen zuen hamarkada askotan zehar ez zela *ezer* egon, *isiltasuna* izan ezik. Era berean, zioen *parentesi artean* jaio zen belaunaldi batekoak zirela, orduan esnatzen eta errealitatea ulertzen hasi zirenak. Argi zuten ez zeudela, inolaz ere, iraultzaren atarian, baina kontziente ziren dagoeneko herria martxan zegoela, bide berri bat ibiltzen hasia zela. Ordura arte, porrotean ainguraturik geratu zen belaunaldiak *zentzuzko oposizio*

batean lo zeudela aipatzen da agirian, *ohoretsu* bezain *itxaropenik gabeko* lozorroan. Baina garai horretan hasiko da kalera ateratzen apurka-apurka galdutako gerra baten ondorengo seme-alaben belaunaldia, abertzaletasunaren unibertso sinbolikoa isiltasunean eta beldurrean egon ostean.

Emilio Lopez Adan 'Beltza' militante, idazle eta medikuaren arabera, 40ko hamarkadaren amaieratik 1956 urtera arte, gutxi gorabehera, euskal herritarrentzat urterik tristenak biziko ziren; izan ere, EAJ ez zen borrokari jarraipen esanguratsu eta eraginkorra emateko gai izan, eta ekintza-modu berriak ez ziren oraindik garatu. 50eko hamarkadaren amaieran aldaketa sozial ugari gertatu ziren, neurri batean abertzaletasuna ulertzeko zein praktikatzeko modu berri baten sorrera eta EAJk gorpuztutako planteamendu tradizionalen agortzea azaltzen dituztenak.

50eko hamarkadaren hasierarako, praktikan, Eusko Jaurlaritzak *barnealdean* zituen ezkutuko erakundeak eraginkortasunik ezera murriztuta geratu ziren erabat. Desartikulazio horren benetako arrazoiei buruz galdetzean, bada bat adituek beste guztien gainetik nabarmentzen dutena: *errepresioaren eraginkortasuna*. Ez zen polizia-teknikaren arazo soila, baizik eta horrek nola eragin zuen

erresistenteen espirituan eta biztanleriaren adorean.

Bestalde, aipatu beharra dago EAJk bere estrategiaren funtsezko pieza bihurtu zuela kanpoko babesa, mendebaldeko estatuena, eta barnealdeko erresistentzia politika horren zerbitzura zegoen tresna batera murriztu zuela. Esate baterako, Beltzak dio masen mobilizazio oro Jaurlaritzak kontrola zezakeenaren mugen baitan egiten zela, honen indarra eta masak zuzentzeko gaitasuna erakusteko xedearekin.

Kanpoaldeko babesean oinarritutako ildoak suntsituta geratu eta arrakasta izateko aukerak porrot egin zuenez, Eusko Jaurlaritzak okasioa izan zuen masa-borroka babesteko hautua egiteko eta, beraz, erresistentziarekin jarraitzeko. Beltzak aipatzen du ildo hipotetiko horrek, langile-klasearen eta haren nortasun politikoaren garapenari begiratuta, politika sozialista eta borroka iraultzailea bultzatzeko beharra azaleratuko lukeela. Aukera horren aurrean, ordea, buruzagi nazionalistek nahiago izan zuten erresistentzia desagertzera kondenatzea.

1956 urtean, hain zuzen ere, Lehen Euskal Mundu Biltzarra ospatu zen Parisen, eta han bildutakoek Eusko Jaurlaritzarekiko eta Agirre lehendakariarekiko konfiantza berritu zuten. Beltzaren hitzetan,

Agirrek bere diskurtsoan ezin izan zuen estrategia zehatzik eskaini, Espainiako Estatuko herrien askatasun-sentimendu sakonean fidatzeaz baino. Hala eta guztiz ere, EAJ pozik agertu zen kongresu horren arrakastarekin. Baina ordurako gazte abertzale ugari alderditik aldentzen hasiak ziren, eta *barnealdean* antolatzen ari ziren mugimendu klandestino berriak beren eragin-eremutik kanpo zeuden.



Agirre lehendakaria, 1956 urtean Parisen ospatu zen Euskal Mundu Biltzarrean.

Garai horretan, EAJren eta euskal burgesia nazionalaren arteko harremanak oso estuak ziren. Zentzu horretan, esan liteke EAJk, ikuspegi interklasista oinarri zuela, burgesiaren interes propioa eta berekoiak babesten zituela. Frantzisko Jabier Landaburuk, 1933-1936 artean EAJren eskutik Espainiako Errepublikako Corteetako diputatua eta 1960-1963 artean exilioan Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea izan zenak, 1956an argitaratutako *La causa del pueblo vasco* liburuan aditzera ematen zuen hori zela EAJren eraginkortasunik ezaren gakoa: burges nazionalista asko negozio onak egiten ari ziren erregimenari

esker, ustelkeria baliatuz zein langile-klasearen gaineko errepresioa sustatuz. Beraz, ez zuten inolako presarik haren aurkako ekintza eraginkor eta subertsiboa babestu edo gidatzeko. Aipatutako liburua garai hartan diktadura frankistan bizi ziren euskal gazteei zuzendutako alegatu abertzalea izan zen.

1958 urtean, behingoz, onartu zuen Agirre lehendakariak amerikarrei ez zitzaizela axola Espainiako demokraziaren arazoa. Hori zen, finean, abertzaletasun jeltkideak belaunaldi berriari eskaintzen zion etorkizuneko ikuspegi ahula. Belaunaldi berri horretako kideak, aldiz, jarduteko irrikaz zeuden, eta EAJren zein bere buruzagien jarrera pasiboaz nekatuta.

Euskal kausa patrotikoaren protagonismoan EAJ ordezkatzeari xede zuen taldea Hego Euskal Herrian sortu eta hazi zen. Talde horren izena EGIN zen, ETAren berehalako aurrekaria izango zena. Sortzaileen lehen bilerak Bilbon egin ziren 1952an, eta 1953an Gipuzkoara zabaldu zen taldea. Hasiera-hasieratik pasa nahi zuten ekintzara, EAJk proposatutako itxaronaldi pazientearekin hautsiz. Hala ere, lehen fasean, 1952 eta 1956 urteen artean, EKINek prestakuntza-lanetan eta jendea erakartzen egin zuen lan. 1956tik aurrera, ordea, fase berri batean sartu zen, eta Euzko Gaztedia deituriko EAJren gazte

antolakundearekin bateratu zen, Euzko Gaztedi sortuz. Beltzaren arabera, anbibalentzia argi bat zegoen EKINen barnean: alde batetik, EAJren ekintza faltarekin haustearen aldeko diskurtsoa zegoen, eta, beste alde batetik, ez zuten hautsi nahi gerrako eta 40ko hamarkadako prestigioa mantentzen zuen nazionalismo zaharrarekin.

Alderdiko buruzagi gehienek, ordea, bereari eusten zioten eta ez zuten gazteek ziotenaz ezer jakin nahi, eta diziplina onartu behar zutela argudiatzen zuten. Testuinguru horretan, saihetsezina zen behin betiko haustura gertatzea. Zehazki, 1958ko abenduan Euskadi Ta Askatasuna (ETA) sortu zen, EAJren *kontrol itogarria* onartu nahi ez zuten Euzko Gaztediko kideek bultzatuta. Pertsona horien artean zeuden EKINeko kide ohiak eta Euzko Gaztediko partaide gehienak.

Zentzu horretan, argitu beharra dago hasiera batean EAJrekiko zatiketa organiko bat egon zela nahiko antzekoa zen mundu-ikuskera baten baitan, neurri batean alderdiko buruzagien jarrerak eragindakoa. Baina, geroago, EAJrekiko konfrontazio eta haustura ideologiko askoz ere sakonagoa existituko da, hala nola, saiaturiko dena islatzen burgesia nazionalak zapaldutako eta esplotatutako gizarte-klase baten

existentzia, eta haren kontra borrokan dagoena: langile-klasea.

Rikardo Arregi, aldiz, *gazteria berria* kontzeptuaz mintzo zen, urte horietan euskal gizartean bizitzen ari ziren aldaketez hitz egiterakoan. Harentzat gazteria berriaren ideiak garai berriak eta esperantza berriak barnebiltzen zituen: *esperantza errabiatua*. Hau da, ez zion horrenbeste erreparatzen urteei edo ez solik horri, bere ikuspuntuaren arabera gaztea ez baitzen batez ere adin kontua, *espiritua* baizik.

Euskal Herriko kasuan, gazteria berri honentzat Francoren mundu zaharrari uko egiteak, Arregiren iritziz, ezinbestean zekarren gerra galdu zuten gurasoen mundua ere ezeztatzea. Hala ere, paradoxikoki, *gurasoen mundu aldrebes* horri aurre egiteak, Benito Lertxundik definituko lukeen moduan, ekarri zuen belaunaldi berri hark haien kausa egiaz baiestea, legatua hartzea. Hala ere, horri lotuta, Arregik zioen *historia berria historia zaharraren aurka* egiten dela, ez baita gurasoen jarraipena, zerbait berria baizik. Lertxundiren abestia baino ia hamarkada bat lehenago, Mixel Labergeriek *Gu gira Euskadiko gazteri berria* abestia sortu zuen, belaunaldi horrek bere *matxinadaren himno* gisa erabiliko zuena. Abesti horretan gazte hitzak, aurrez esan bezala, ez dio soilik adinaren auziari erreferentzia egiten, *kontzientzia matxinatua* eta

mundu-berri-gosea duen gizabanako eta kolektiboei baizik, *eraikita zegoenaren egituren* aurka zeudenak.

1950eko hamarkada bukaeratik, euskal sentimendua berritzen hasten da, bere baitan zartada bat sentitzearen ondorioz belaunaldi berri baten esnatzea edo ernaltzea gertatu ostean. Urte horietan gazteriak abertzaletasun klasikoarekin hausten du, eta bere buruaren identifikazio berria bilatzeari ekiten dio. Ordu arte, Francoren *bakeko 25 urteko garai* moduan ezagutu izan den etapan, dena lo zegoen, itota. Eta, justuki, momentu horretan gertatzen da belaunaldi berrien euskal kontzientziazioa. Prozesu hori, esnatzearena zein kontzientzia hartzearena, Arregiren hitzetan, garratza izan zen, Euskal Herriaren egoera ikusita ezin baitzen bestelakoa izan. Era berean, testuingurua kontuan hartuta, belaunaldi horren izaera ere ezin liteke izan beste mota batekoa: *errebeldea, konformagaitza* eta *erradikala*.

Hori horrela, Arregik zioen, finean, horrela defini genezakeela gazteria berria: *lehengo politikaren molde zaharretan ezin jokaturik, politika arazoetarako bide berrien bila dabilen gazteria*. Politikaren molde zaharretan jokatu ezin duen moduan, euskal gizarte-egitura tradizionalan ere jokatu ezin zuela oroitarazten zuen Arregik. Izan ere,

gazteria berri hori erabat industrializatutako gizartean bizi zen, eta ez zen baserritarraren seme-alaba, *euskal langileriarena* edo *burgesiarena* baizik. Hori horrela, zioen *aurreko euskaltzaleen* munduaren kontzeptzioak ez zela ezertarako balio, hau da, beharrezkoa zela joko-zelai berria onartu edo ondo ezagutzea. Illdo beretik, Zulaikak dio garai horretan nagusitu zen kapitalismo industrialak guztiz transformatu zuela Euskal Herria eta errealitate horrek nahitaez kondizionatu eta eraldatu zuela euskaldunen subjektibitatea ere.


2.2. Zumaia, jauntxokeriaren ispilu

Modu horretara deskribatzen zuten 1967 urtean, *Gazte: Erri Gaztedia*. *Ekintzaile guztien aldizkariaren* bosgarren zenbakian, Herri Gaztediko ekintzaile zumaier batzuk bere herria. Zehazki, beraien hitzetan *jauntxokeriak herri bateri ekartzen dizkion kalte guztien ispilu garbia* zen garai hartako Zumaia.

Hala ere, gure herria 60ko hamarkadan nolakoa zen aztertu aurretik, une batez atzera egin eta Gerra Zibila zein frankismoko lehen urteak izango ditut hizpide. Horrek, neurri handi batean, lagun diezagukelako ulertzen zergatik zegoen, Zumaian ere, isiltasun erabatekoa Gerra Zibila bizi izan zuen jendearen partetik Herri

Gaztedi sortu eta herriko gazteak antolatzen hasi ziren arte.

1936ko irailaren 21ean erreketeeek Zumaia okupatu zuten. Aurreko gauean portua ihes egiteko puntu bihurtu zen zumaierrentzat, baita Gipuzkoako beste leku batzuetatik etorritako errefuxiatuentzat ere. Itsasontzi asko abiatu ziren armada errebeldearen zaintzatik ihesi gaueko iluntasunaren babesean. Irailaren 21ean, Getariatik zetozen Francoren tropei igarotzea atzeratu nahi izan zitzairen Zubitxikia dinamitaz leherrarazita. Zubia leherrarazi zutenean ez zen errepublikanorik, ez abertzalerik geratzen Zumaian. Dena den, matxinatuen tropak nahiko erraz sartu ziren herrian.



1936ko irailaren 20an Zubitxikia leherrarazi zuten milizia errepublikanoek, matxinatutako tropen aurrerakada oztopatzeko asmoz.

Bestetik, aipatu beharra dago Gerra Zibilean armada frankistako boluntarioen talde erreketeeak antolatu zirela. Horren adibide dira 36 zumaier boluntarioak. Zumaia matxinatuen esku erortzeak bertako karlismoari ikusgarritasuna eta ordura arte inoiz izan gabeko nagusitasun soziala eman zion.

Zumaia matxinatuen eskuetan erori ostean, herritar ugarik alde egin zuten Bilborantz gerratik ihesi eta, batez ere, errepresalien beldurrez. Haietako gehienak, gainera, batailoietan izena eman eta borrokara batu ziren. Horrek ondorioak ekarri zizkien berehala etxean geratzea aukeratu zutenei; bereziki armadarako mobilizatuen artean ez zeudenei, hau da, haurrei eta adinekoei, baina batez ere emakumeei.

Gipuzkoako beste hamalau herritan bezala, errepublikanoen aldean gudulari modura zegoen edo errepresalien beldur herria uztea erabakitako senideren bat zuten familiei zortzi eguneko epea eman zieten etxera itzul zitezen. Bestela, haien senideak kanporatuak izango ziren.



Zumaiar kanporatuak, 1937 urtean.

Zehazki, 1937 otsailaren 12a bitarteko epea eman zuten ihes egindakoak etxera itzul zitezen. Baina ez zen inor itzuli, eta ondorioz, 1937ko otsailaren 13an eta 14an 252 pertsona herritik kaleratu zituzten. Gehienak emakumeak eta haurrak ziren, senideren bat

(senarra, semeak edo anaiak) frontean borrokan zutenak.

Ez zen garbiketa ideologikoa soilik izan, benetako mendekua baizik. Izan ere, kanporaketen bidez *shock* ekintza gogor bat egiten zuten, helburu batzuk lortzeko. Helburu horien artean nagusia, menpean zeuzkaten herrietan *bake kontrolatua* bermatzea izango litzateke, ezartzen ari zen erregimen berriarekiko uzkurak ziren sektoreak bistatik kentzen saiatuz. Herria uztera behartuta egon ziren 252 zumaiarrek **Agur Jesusen ama** abestia kantatuaz utzi zuten herria.

Egun horietan Zumaia utzi behar izan zutenek gain, gerra zein diktadura urte haietan beste hainbat gizabanako zein familiak ere alde egin behar izan zuten herritik, eta beste hainbati ondasunak konfiskatu zizkieten, askatasuna murriztu, kontzentrazio-esparruetan zein espetxeetan sartu edota heriotz-zigorra ezarri zieten.

Gainera, gerraren amaierarekin ez zen guztia bukatu: okerrera iristear zegoen. Izan ere, gerrari diktadura basatiak jarraitu zion. Diktadura frankistaren lehen urteetan gosete latzak bizi izan zituzten herritarrek, eta egunero bizirautea lortzeko zailtasunak ez ziren gutxi. Eta gutxi balitz, horri askatasunak, indibidualak nahiz kolektiboak,

hertsatuko zituen lege-andana gehitu behar zitzaizkien.

Urteak aurrera egin ahala, eta ekintzaile zumaiarren testuan jasotzen denaren arabera, *Gipuzkoako beste herrietan baino lehenago* sortu zen industria Zumaian, *herriko semeei eta inguruko beste zenbaiteri ere bizibide emanaz*. Horrek, besteak beste, ekarri zuen herri honek *beste askok baino komunikazio hobeak* edukitzea. Hala ere, azken hogeit edo hogeita bost urteetan egin zuen aurrerapena *oso eskasa* izan zela salatzen zuten ekintzaileek; gainera, kontuan izanik *Urola bailararen kaia* dela gure herria.



Urola ibaia, 1955 urtean.

Aurrerapen urri horren arrazoi nagusia, haien iritziz, honakoa zen: industriaren nagusiek urteetan zehar ez zutela *beste kezkarik izan nola edo ahala dirua pilatzea baino*. Horregatik, azaltzen zuten kapitalista horiek (hala nola, *Carmelo Unanue S.A., Construcciones Mecánicas Eguiguren* edo *Conservas Ortiz* enpresetako jabeak) *bere ahalmen guztiekin* ahalegindu zirela *nahiko oztopo ipintzen* herrian jarri nahi izan ziren lantegiei, beste toki

batera joan zitezen, *arrisku handia* ikusten baitzuten konpetentziarekin *lansariak igo eta irabaziak gutxitzeko*.



Carmelo Unanue S.A. enpresa.

Konkretuki, garaiko ekintzaileek adierazten dute Carmelo Unanuek *sekulako diktadura* zuela ezarrita herrian. Berak ezartzen zuen bere enpresan ez ezik herriko gainontzekoetan egon beharreko soldatak zenbatekoak izan behar ziren, eta, gainera, herriko fabrikak *inspekzionatzera* joaten zen, dena *ondo* funtzionatzen ari zela bermatzeko. *Fundiciones Torreaga, S.L.* izan omen zen Unanueren *diktadurari* lehen kolpea eman ziona, lehenengoa honakoa argi esaten: “Hik nahi dekena esango dek, baina ni sartu ingonauk hemen”.

Beste alde batetik, salatzen zuten enpresari horiek euren lantegietan *eguneratzeko ezere* zutela egiten, eta gehienak *zaharkitutako tresneri* batekin lanean jarraitzen zutela, berrogei urte lehenagoko *era berdinean* bezala. Horren ondorioetako bat litzateke, testuan jasotzen denaren arabera, atzerriko industriekin *lehiaketa pixkat* sortu

orduko garbi ikusi zela ez zutela zer eginik haien ondoan.

Egoera horren aurrean, eta kontuan izanik lansariak *beste herrietakoen ondoan behean* gelditzen ari zirela, azaltzen zuten gero eta gehiago zirela *ogia irabazteko herritik kanpora atera beharrean* aurkitzen ziren zumaiarrak, batez ere gizonezkoak. Batzuk itsasora, eta beste batzuk, aldiz, inguruko herrietako lantegietara. Emakumezkoen kasuan, berriz, nahiz eta asko ziren lana —soldatapean— egin nahi zutenak, etxean zeuden *nora joanik* ez zutelako.

Dena den, argipen moduan, zioten beraien asmoa ez zela egoera horren errua *hiru edo lau jauntxoek bizkarrera bakarrik bota eta hortan gelditzea*, argi baitzuten horiek egin izan zituzten zenbait bidegabekeri ez zituztela egingo herriko jendea *lozorroan* egon beharrean bakoitzak *gizarte-bizitzan duen erantzukizunaz jabetuta*, arazoei erantzuten saiatu izan balira.

2.3. Eliza, leihoak zabaltzen lagundu zuten haize berriak

Eliza, urte horietan, frankismoaren kritikarako zein euskararen eta euskal kulturaren suspertzerako babesgune izan zen. Gainera, kontuan izan behar da Elizak gizarteko geruza guztietara iristeko

gaitasuna zuela, besteak beste, apaiztegiak eta hainbat kongregazio baitzeuden Euskal Herrian: kaputxinoak, frantziskotarrak edo beneditarrak, esaterako.

1974an argitaratutako ETaren Agiri² ospetsuan adierazten denez, euskal kleroa zen Euskadiko bizitzan eragina zuen talde nagusietako bat. Era berean, azpimarratzen zen euskal kleroa izan zela azken gerran bere herriaren alde (partzialki, behintzat) jarri zen bakarra *nazionalismo faxista espainolaren* aurka; hildako eta espetxeratutako apaiz kopurua nabarmena izatea eragin zuena.

Gerra Zibilaren ondoren, ordea, kleroa denbora luzez geldirik egon zela salatzen zen agirian, Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) markatutako joerari jarraituz. Baina ETaren sorrerarekin berriz ere posizio bat hartzera eta isilik gehiago ez egotera eraman zituen apaizak, adibidez, euren sermoietan erakundeko militanteen aurkako atxiloketak eta torturak salatuz edo erregimen frankistaren justizia auzitan jarritz.

Ordutik aurrera, euskal kleroaren zati batek Euskal Herriaren zapalkuntza nazional eta sozialaren aurka egindako borroka hasi baino ez zen egin ETaren hitzetan, eta horrek Elizako hierarkiarekin

² ETA militarren (ETA-m) sortze-agiri gisa hartu izan da.

enfrentamendu zein konfrontaziora eramane zuten, sekularizazio ugari eragin zituen apaiz-krisia sortuz. Horrela, Joseba Zulaikak *Aberriaren inpaseak* liburuan azaltzen duen moduan, *kristautasunaren egia gordetzeko ateo izatera behartuta* sentitu ziren asko.

Euskal apaizek batez ere 60ko hamarkadatik aurrera hartutako jarrerak eta garatutako jarduerak (torturen salaketak, greban zeuden langileei laguntzeko diru-bilketak, borroka kulturala, antolakunde iraultzaileei eskainitako azpiegiturak, talde horietan militante gisa parte hartzea, etab.) eragin zuten, agirian azaltzen denez, Espainiako Estatuko kleroaren abangoardia izatea, baita beste lurraldeetako kleroarekiko kualitatiboki ezberdina zen talde bat osatzea ere, Euskal Herriaren kontzientzia nazionalak zuen indarraren ondorioz.

Urte horietan ez zen kasualitatea ezta arraroa ere abitua zintzilikatu eta honakoa militantzia sozial edo politikoagatik aldatzen zuten apaizen adibideak aurkitzea, edo ETAn sartzea erabakitzen zutenenak. Oro har, euskal kleroaren garaiko ezaugarri esanguratsuenetako batzuk bere barnean existitzen zen kontzientziazio politiko-soziala eta elkartasun-giroa izan ziren.

Eliza katolikoaren tamaina eta garrantziako nazioarteko erakunde boteretsu baten barruan, Euskal Herria zati txiki bat baino ez dela azpimarratzen du Josemari Lorenzo historialariak, lurralde-eremu urria eta zatitua duena, baina euskaldun katolikoek une jakin batzuetan protagonismo handia izan dutela.

Betidanik euskal lurretan erakunde katolikoek garrantzia handia izan dute, baina batez ere Gerra Zibila amaitu zenetik. Gerraosteko belaunaldien hezkuntza publikoak nazionalkatolizismo frankistaren aginduak bete izan zituen une oro. Bitartean, hezkuntza pribatua jesuiten, eskolapioen, salestarren, beneditarren eta abarren eskuetan zegoen.

Lorenzoren esanetan, hezkuntza-botereen banaketa horrek funtzionatu zuen gizartearen gainerako eremuetan garaituen aurkako beldurra, mendekua eta jazarpena mantendu ziren bitartean. Baina denborak aurrera egin ahala gerra ezagutu eta horretan parte hartu ez zuen euskaldunen lehen belaunaldia beldurra galtzen hasi zen. Gazte horien artean, asko apaizgaiak edo ordenatutako apaizak ziren, erregimenaren aurkako oposizio nazional eta soziala sortzeko prozesuan ekarpen handia egin zutenak. Pixkanaka, hasiera batean izan zitzaketen jarrera sozialak eta bokaziozkoak militantzia

erradikalagoengatik aldatu
zituzten.

Euskal komentuak eta seminarioak, garai horretan, semei ikasketak ordaindu ezin zizkieten ahalmen ekonomikorik gabeko familien babeslekua izan ziren nagusiki, eta ez horrenbeste etorkizuneko fraide eta apaizentzako *harrobiak*. Izan ere, gaitasun ekonomiko handia zutenen semeak unibertsitatara joaten ziren bitartean, gainerakoak 14 urterekin lanera sartzen ziren edo, bestela, seminarioan ematen zuten izena. Justuki, 60ko hamarkadan disidinteen eta sistemarekiko kritikoen *iturri* izan ziren seminarioak, batez ere Deriokoa.

Asko izan ziren, esate baterako, Herri Gaztediko ekintzaile, seminarioetako kide edo apaiz izatetik ETA erakunde armatuan sartu zirenak. Herriaren aurkako errepresioa eta zapalkuntza politiko-kulturala gero eta indartsuagoa zen, eta egoera horren aurrean euskal apaiz askok erabaki zuten, lehenik eta behin, erregimenaren konplize edo laguntzaile ziren hierarkiei aurre egitea eta, ondoren, sotanak albo batera utzi eta antolakunde sekular erradikal eta aldarrikatzaileetan sartzea.

Hala nola, Eustakio Mendizabal 'Txikia' ETako Fronte Militarreko buruzagiaren kasua aipa genezake, 1954an Lazkaoko beneditarren

komentuan sartu zena, 10 urte zituela, bere bi anairekin batera. Teologia ikasketak ia bukatuak meza emateko gutxi falta zitzaiola, komentua uztea erabaki zuen 1967an, eferbeszentzia politikoak markatutako garaian, nahiz eta errealitatean ez zuen guztiz lagako; esaterako, urtero ospatzen zen euskarazko antzerki-saioa antolatzen jarraitzeko konpromisoa hartu zuen. Horrez gain, aipa genezake komentutik atera eta urte batera, Txabi Etxebarrieta ETako kidearen omenezko meza ospatzen ari zen bitartean, Lazkaoko San Migel Goiaingeruaren parrokiako dorrean ikurrina jarri zuela, eta ekintza hori gauzatu izanagatik Gobernu Zibilak ezarri zion multa ez ordaintzearen, Martuteneko espetxean hilabeteko egonaldia egin behar izan zuela.



Eustakio Mendizabal 'Txikia', Juan Joxe Agirrerekin batera, artean debekatuta zegoen ikurrinari egindako omenaldi batean.

Bestetik, Jose Miguel Beñaran 'Argala' militante arrigorriagarraren adibidea legoke. Bere kasuan, ez zen komentu edo seminario baten parte izan, baina Legión de María taldean aritu zen. Esan daiteke, hasiera batean, gisa horretako erakunde katolikoen helburu nagusietako bat *gizarte-miserian murgiltzea* zela, *hura pairatzen zutenak kontsolatzeko*. Erakunde horietan parte hartuz, gazte askok, Argala kasu, gure herrian existitzen zela ez zekiten errealitate bat ezagutu zuten. Hala ere, ETAko kide historikoak bere autobiografia politikoa³ aipatzen duen moduan, errealitate horren berri izan arren, gazte horiek, kasu askotan, oraindik ez zituzten ezagutzen edo ulertzen ikusten zuten sufrimenduaren arrazoiak. Baina, pixkanaka-pixkanaka, horietako askori argi geratu zitzairen *kontsolamenduak ez dituela gosea eta gaixotasunak kentzen*. Zentzu horretan, azpimarratu beharra dago bere autobiografian, agerikoa den moduan, bere bizipenak eta bere pentsamenduaren bilakaera errepasatzen dituen arren, Argalak sekulako gaitasuna zuela *konkretua den hori analizatzeko eta islatzeko*, subjektibitate kolektibo batetik abiatuta; hau da, ez soilik bere errealitate konkretu modura, baizik eta *gazte mordo baten fenomeno zehatz gisa*.

Atzera bueltatuz, Argalak aipatzen zuen Legión de María taldean aritu zen urteetan, eta bertan bizi izandako esperientziei esker, ulertzen —edo, gutxienez, ikusten— hasi zela gizarteko arazoak, baina oraindik ez zuela ezagutzen haiek konpontzeko irtenbide edo soluzio baliagarririk. Gainera, zioen oraindik ez zela kontziente burgesiaren eta proletalgoaren arteko borrokaren izaera antagonikoaz, ezta gatazka sozialen izateko arrazoiak ere, garai hartan zuen ikuspegi idealistaren eraginez. Hau da, ez zen jabetzen langile-klasearen esplotazioa eta haren aurkako errepresioaren atzean ekoizpen-modu jakin bat zegoenik; kapitalista, alegia. Pixkanaka krisian sartu zen bizitzaz eta gizarte-harremanez zuen erlijio-ikusmoldea, eta aldaketa ideologiko sakona bizi izan zuen, zeinari esker *puzzlearen pieza bakoitza bere lekuan* jarri ahal izan zuen, teoria marxista aztertzen ekitearen ondorioz. Besteak beste, jabetzen hasi zen gizartea interes bateraezinak zituzten bi klasetan zegoela banatuta; kontua ez zela aberatsek, karitatea oinarri izanik, pobreei laguntzea, baizik eta produkzio bitartekoak sozializatzea; justizia soziala erdiesteko beharrezkoa zela iraultza kultural sakon bat, eta horretarako ez zela nahikoa borondate ona,

³ Jokin Apalategiren *Los vascos, de la nación al Estado* liburuaren edizio originalaren hitzaurreako idatzi zuen Argalak bere autobiografia politikoa.

ezinbesteko baldintza zela ekoizpen-modu kapitalista beste sozialista batengatik ordezkatzeari; hori posible izan zedin, langileriak botere politikoa eskuratu eta konkistatu behar zuela; eta estatu-aparatua ez zela neutrala, beraz, langile-klasea derrigortuta zegoela estatu burgesa suntsitzera beste bat sortzeko: Euskal Estatu Sozialista.

Orain arte ikusi dugun moduan, apaizen bizimodua bete-betean baldintzatu zuen inguruko giroak. Urte horietan, Joan XXIII.a Aita Santuaren edo bere ondorengo Paulo VI.aren *aggiornamentua* deiturikoarekin eta Vatikanoko II. Kontzilioaren efektu pastorekin bat kointzidituz, euskal klero garaikideak garrantzia berezia hartu zuen. Besteak beste, herriak eta euskal langileriak bizi zituen arazo politiko eta sozialen aldarrikapenei erakutsitako babesagatik eta horien aurrean hartutako konpromisoagatik.

Batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan gatazka ugari gertatu ziren apezpikuek ordezkatzaren zuten hierarkiaren eta apaiz talde baten artean, zeinak 50eko hamarkadaz geroztik behin baino gehiagotan salatu zuten erregimenaren jarrera errepresioaren auzian. Testuinguru horretan, errepresioak gora egin zuen, apaizei ere eraginez, baina

horrek ez zuen geldiarazi hauek abiarazitako protesta politikoa.

Horrela, garai horretan apaizen jarrerak izan zuen biraketa nabarmena antzeman daiteke. Izan ere, euskal apaizen belaunaldi berri bat hierarkiekiko obedientziatik aldendu zen, eta herri-kausetik elkartasuna adierazi zuen. Ordutik, ohikoa zen apaizek langileen aldeko protestetan edo manifestazioetan parte hartzea, parroketan homiliak irakurtzea edo panfletoak banatzea, eta langile-antolakundeei zein ETari laguntzeko lanetan parte hartzea edo horietan militatzea. Guzti horren eraginez, gobernu zibilak hainbat apaizi isunak jarri zituzten edo atxilotu egin zituzten, horietako asko Zamorako apaiz-kartzelari⁴.



Zamorako apaiz-kartzela.

Paulo Iztuetaaren esanetan, Vatikanoko II. Kontzilioak norabide zabal batzuk eskaini eta munduan zehar zenbait kezka hedatu zituzten, eta horiek oinarri hartuta han eta hemen esperientzia berriak sortu ziren, tartean Euskal Herrian. Era

⁴ Frankismoaren azken urteetan, 1968tik 1976ra arte, Espainiako Estatuak, Elizaren onespenearekin, bereziki euskal apaiz eta fraideentzat sortutako kartzela izan

zen, arrazoi politikoengatik atxilotu zituztenak. Hala ere, gerora Estatuko gainerako lurraldeetako beste apaiz eta fraide batzuk ere espetxeratu zituzten han.

berean, hainbat izan ziren Vatikanoko II. Kontzilioak zabaldu zituen eztabaida eta abaguneak.

Konkretuki, 1962ko urriaren 11n eman zitzaion hasiera Eliza katolikoarentzat erabakigarria izango zen Kontzilio ospetsuari. Joan XXIII.a Aita Santuak deitu zuen, eliz komunitatearentzat kritikoa zen une batean. Ordura arte, Eliza katolikoak Vatikanoko I. Kontzilioaren ildo kontserbadoreari eutsi zion, kuria vatikanoaren kontrola eta buruzagiek mugimendu berritzaile ororen aurka ezarritako inposaketak oinarri izanda.

Alde batetik, Batzar Nagusi honek Elizaren egitura soziologikoa salatu zuen. Esaterako, aipatzen zen Eliz erakundeak kapitalismoaren egituran zuzeneko parte-hartzea zuela. Horrez gain, Elizaren aginte politikoa ere auzitan jartzen zen, batez ere kontzientzia mailan gertatzen zena; adibidez, apaizei *politikan sartzea* debekatzen zitzaien, eta ebanjelioaren izenean bidegabekeriak salatzen zituzten apaizak polizia politikoaren eskuetan uzten zituzten. Azkenik, Elizaren ideologia kritikatzeko zen, hala nola, pasibotasuna ezartzen, nazio zapaltzaileen ideologia hedatzen eta ordena errepresiboen bortxakeria onartzen zuena.

Beste alde batetik, Elizan demokrazia gehiago eskatzen zuen Kontzilioak, ez baitziren onartu nahi

Erromako zentralismotik agindutako planteamenduak, eta ukatu egiten zelako goitik beherako Elizaren barne egitura hori. Horren aurrean, honakoa aldarrikatzen zen:

- Tokian tokiko Elizak indartu behar ziren. Izan ere, gotzainak tokiko kristauek hautatuko zituztela argudiatzen zuten, eta hauek ez zirela betirako hautatuak izango, aldi baterako bakarrik baizik.
- Apaizkeriaren kastarekin eta sakratukeriarekin hautsi behar zen. Haien iritziz, apaiza herritar bat gehiago besterik ez baitzen, *gizartearen bihotzean* bertan dagoena bere egitekoak gauzatzeko.
- Apaiz mota bat baino gehiago onar eta irudika zitekeen. Adibidez: apaiz ezkondua bere pastoral-lana egiten apaizgintza utzi gabe, lan profesionala egiten duen apaiza, politika arazoetan sartuta dagoen apaiza, etab.

Elizaren baitan gertatzen ari ziren aldaketen artean, liturgiaren hizkuntzarena ere bazegoen. Mendeetan zehar latinez ospatu zen, baina Vatikanoko II. Kontzilioarekin ate bat ireki zuen Elizak herri-hizkuntzen erabilerari dagokionez. 1965 urtean, Paulo VI.a Aita Santuak lehen meza eman zuen latina ez zen beste hizkuntza batean: italieraz. Laster ekin zioten apaiz ugarik meza gaztelaniaz edo frantsesez eskaintzeari, besteak

beste. Euskal Herrian, kleroaren parte handi bat ere hizkuntzaren defentsan mugiarazita zegoen, eta eremu euskaldunetako hainbat parrokia meza euskaraz eskaintzera ausartu ziren. Lehenak Lazkaoko beneditarrak izan ziren.

Azkenik, Iztuetaren aburuz, sozialismoaren aldeko aukera ere ireki zuen Kontzilioak. Izan ere, testuinguru horretan aintzakotzat hartzen hasi zen Elizaren baitan sozialismoak gizon-emakumeen askatasunerako zuen betekizuna. Hori horrela, bereizketak bereizketa eta oharra ohar, sozialismoaren egiteko historikoa onartzen da, eta hainbat herrialdetako gotzainek *kapitalaren jainkoa* salatzen dute.

Hala ere, aipatu beharra dago 1959an Joan XXIII.ak Kontzilio ekumenikoa deitu izanak kezka eta haserrea eragin zuela Eliza katolikoaren baitan nagusi zen alde kontserbadorean, Aita Santuaren erabaki pertsonal hark Elizaren norabidea alda zezakeela uste baitzuten.

Berehala mugitu zuten fitxa, eta saiatu ziren iragarritako Kontzilio aurrekoaren jarraipena izan zedin, amaitu gabe geratu baitzen. Baina Joan XXIII.ak auzia behin betiko ebatzi zuen eta, askoren harridurarako, bere orientazioa markatu zuen, argi utziz helburua *aggiornamento* deitu zuena zela, hau da, Elizaren misioa eguneratzea.

Kontzilioaren prestaketa (1959-1962) gogorra eta luzea izan zen, eta horren ospakizuna (1962-1965) amaitu zen *Gaudium et spes* izeneko dokumentu enblematiko batekin, azken kontziliazio-saioan onartua, 1965eko abenduaren 7an. Baina errealitatea izan zen, urteak joan urteak etorri, Vatikanoko II. Kontzilioak ez zuela lortu Joan XXIII.aren desio profetikoa islatzea eta gauzatzea: Elizaren berrikuntza, pobreengandik eta pobreentzat.

Izan ere, Paulo II.aren aitasantutza luzeak eta bere ondorengo Benedikto XVI.arenak ez zituzten Vatikanoko II. Kontzilioak proposatutako erreforma eta ildoak, bere ondorio guztiekin, muturreraino eramanez. Félix Placer Ugarte apaiz eta teologoaren esanetan, beste era batera interpretatu zuten, modu kontserbadorean. Berritutako egiturak izango zituen eta herrien konpromiso askatzaileetan inplikaturik zen pobreen Elizan ilusioa jarri zuten pertsona askoren esperantzak baztertuta geratu ziren, nahiz eta esperantza txiki bat bizirik mantendu. Baina frustrazio horren kausak ez ziren jarrera kontserbadore horien ondorioa soilik, Kontzilioaren mugetan ere bazuten jatorria.

Horri lotuta, Kontzilioa igaro eta hamar urtera, 1975ean, Mikel Argiñarenak zioen Kontzilio ondorengo kristauen eta Eliza ofizialaren eraberritzea Euskal

Herrian ez zela nahikoa izan. Bere esanetan, pertsonak klasetan banatuta daudela ahaztuta edo herriak inperialismoaren pean bizi direla gogoan hartu gabe oihukatzen baitzuen Elizak justizia, maitasuna eta elkartasuna. Hori izan zen, bere iritziz, Euskal Herriko kristauak sozialismoaren bidera batu izanaren arrazoi nagusia: konbentzitu egin ziren kristautasuna ezin zela kapitalismoaren barnean bizi, eta horretarako edozein ahalegin *huts* bihurtuko zela.

3. Herri Gaztediren iritsiera eta bilakaera Zumaian

Jarraian, Herri Gaztediren sorreraz, bilakaeraz eta Zumaian garatutako jardunaz arituko naiz, baita mugimenduaren oinarriez, antolaketa-ereduaz eta auzi konkretu ezberdinen gainean zuen posizioaz ere.

3.1. Herri Gaztediren aurrekariak

Herri Gaztedi mugimenduaren lehen aztarnak Zumaian 1966 urtean topatzen ditugu, honen sorrera baino urtebete beranduago. Zehazki, garaiko ekintzaileak bat datoz adieraztean Joanito Dorronsoro, urte horietan herrian apaiz gisara aritzen zena, izan zela Herri Gaztediren *bultzatzailea* Zumaian. Hala ere, horren aurretik ere hasia zen Gipuzkoako apaiz eta fraide gazte talde bat Eliza berritzeko eta Euskal Herriaren martxara moldatzeko saiakeran lanean, Dorronsoro berak 1975 urtean **Anaitasuna** aldizkarian oroitzen zuenez. Izan ere, zioen espirituak gogor bultzatzen zituen garaiak zirela, Eliza herriaren borrokan txerta zedin ahalegindu zirenak euren indar guztiekin, Estatuarekin zuen sasi ezkontza haustea bilatzen zuten era berean, honakoa Euskal Herri langilearen kalterakoa zela iritziz.

Hala nola, apaiz eta fraide gazte horiek, pauso hauek ematea erabaki zuten, Joanitoren bidez

Zumaian ere nolabaiteko isla izan zutenak:

1) Kristau elkarte biziak sortzen ahalegintzea. Herri Gaztedi gisa honetako elkarte moduan kontsidera genezake, baina horren aurretik ere, jarraian ikusiko dugun moduan, izan ziren bestelako taldeak Zumaian, modu batera edo bestera Elizarekin eta kristautasunarekin lotura zutenak: OARGUI, Luistarrak, Mariaren Alabak, etab.

2) Estatuaren eskutik jaso ohi zuten “soldata” herriaren zerbitzutan erabiltzea. Neurri honi lotuta, interesgarria da erreparatzea 60 abade inguruk 1968an Derioko seminarioan ia hilabeteko itxialdia egin ostean gauzatutako adierazpenei. Bertan, abadeek hitz eman zuten herri mugimenduei laguntzen jarraituko zutela; justuki, modu horietako bat izan liteke euren diru-sarreraren bidezko sostengua. Baina, aldi berean, urte horietan asko izan ziren Elizaren edo/eta Estatuaren partetik jasotzen zuten “soldata” horri uko egin ziotenak eta, hurrengo puntuan aipatzen denari lotuta, lan zibilak bilatu zituztenak.

Bigarren puntu honek **Katakonben Ituna**, Vatikanoko II. Kontzilioa amaitzeaz zegoela zenbait gotzainek sinatu zutena, gogorarazi dakigu

zenbait aspektutan. Konkretuki, 1965eko azaroaren 16an sinatu zuten itun hori Santa Domitilako Katakombetan (Erroma, Italia), eukaristiaren ostean. Berrogei sinatzaileen artean, gehienak Hego Amerikakoak, Bittor Garaigordobil apezpiku abadiñarra zegoen, jada Ekuadorren misiolari gisa zegoena eta egun horietan Vatikanon pasieran ibili zena hain berezkoa zuen txapela burutik kendu gabe. Itun horretan, besteak beste, konpromisoa hartzen zuten herria bizi den bezala bizitzeko, handikeria guztiei uko egiteko, elizbarrutiko finantzak *laiko konpetenteen* esku uzteko eta euren burua behartsuenen zerbitzura jartzeko. Finean, erronka nagusia Hego Amerikako txiroei ebanjelioaren berri ematea zen, erregimen totalitaroengatik zapalduak eta aberastasuna esku gutxitan pilatzen zuen sistema baten mende zeudenak. Eta horrek, ezinbestean, ondorioak eta aldaketak ekarri behar zituen Garaigordobil eta gainontzeko sinatzaileen bizimoduan.



Bittor Garaigordobil Vatikanon, 1965eko azaroan.

Abadiñarrak, esaterako, Los Ríos (Ekuador) probintziako Gotzain Jauregia saldu zuen, eta eskuratutako diruarekin, katedraleko aretoan “jauregi” sinple eta praktiko bat eraikitzeaz gain, hainbat nekazaritza-kooperatibari interes gabeko kredituak egin zizkien eta MAS (Movimiento de Acción Social) mugimenduari zein CEDOC (Confederación Ecuatoriana de Obreros Católicos) konfederazioari laguntza ekonomikoa eman zien; besteak beste, etxebizitza kooperatiboak sortzeko, zentro komunalak eraikitzeko edo nekazalgoaren lan-eskubideak defendatzeko.



Santa Domitilako Katakombak.

- 3) Parrokia bazter edo ez, nork bere bizibidea aukeratu ahal izatea. Konkretuki, sustatzen zen, ahal izanez gero, fabrika batean eskulan moduan aritzea. Dorronsororen kasuan, Torreaga fundizioan aritu zen lanean hainbat urtez. Hasiera batean apaizgintzarekin uztartuz, 1972 urte inguruan parrokia uztea erabaki zuen arte.

60ko hamarkadan, alde batetik, Luistarrak (Centro parroquial de San Luis Gonzaga) eta Mariaren

Alabak (Hijas de María) deituriko kongregazio erlijiosoak topa zitezkeen. Lehenengoa mutilei zegoen zuzenduta eta bigarrena, aldiz, neskei. Luistarren kasuan, euren egoitza moduan urte batzuk lehenago frankistek errexisatutako Batzokia zuten, Elizak berarentzat hartzea lortu zuena. Bertan, gaztetxoentzat billarra, ping-pong eta futbolina zeuden, eta helduxeagoak karta-jokoetan ere aritzen ziren ardo *porroian* edaten zuten bitartean.

Baina guztia ez zen aisialdira mugatzen, eta horren adibide da **Alkar Izketa** deituriko buletina argitaratzeko erabakia. Buletina, justuki, urte batzuk beranduago Herri Gaztediko ekintzaileek panfletoak, eskuorriak edota manifestuak ateratzeko erabiltzen zuten *multikopistarekin* inprimatzen zuten Luistarrek. Bertan, esaterako, mutil zein neska gazteen kezkak, kulturari lotutako gaiak edo herri-kontzientziaren auzia lantzen ziren, baina txisteentzat tarte ere bazegoen. Aldizkarian idazten zuten guztiak zumaiarrak ziren: Jesus Mari Larrazabal 'Tarzan', Josu Iñaki Alvarez Yeregi, Rufo Bidasoro, Joanito Dorronsoro, Luis Mari Aristegi, Pello Etxabe, Abelin Linazisoro, Luis Daniel Ispizua, Jexux Eizagirre, etab. Gehienek gazteleraz idazten zuten, eta soilik gutxi batzuk euskaraz.



Alkar Izketa buletinaren 13. zenbakia, 1968ko garagarrillan argitaratua.

Beste alde batetik, OARGUI (Obra Atlético Recreativa de Guipúzcoa) legoke, Luistarren sekzio moduan funtzionatzen zuena praktikan Zumaian. Talde honek, alde batetik, irteera kulturalak antolatzen zituen: ur-errotak, jauregiak, etab. bisitatzerak. Bestetik, mendi-ibilaldiak ere egiten zituzten OARGUIko kideek. Horrez gain, hainbat ekintza ere jartzen zituzten martxan, kutsu erlijiosoak zein aldarrikatzaileak zutenak. Horien artean ezagunena ziurrenik izango da 1955 urtean Indamendin gurutzea egitea erabaki zutenekoa. Gurutzea eraikitzeko baimen guztiak lortu bezain pronto, materiala mendira igo eta tontorrean porlanezko gurutze handi eta sendoa altxa zuten. Gainera, ikurrina bat sartu zuten

ezkutuan oinarrian, gurutzearen azpialdean. Hainbat herritarrek hartu zuten parte gurutzea eraikitzeko zein txuriz margotzeko lanetan, tartean haurrak ere. Garaian 9 urte zituen Pello Etxabek azaltzen zuenez, igande goizetan joan ohi ziren lanera. Lehenengo trenean abiatzen ziren Oikiako geltokira arte, eta handik, trenbidez, Miako tunelaren sarreraraino joaten ziren oinez. Gero, handik Miako hostalera eta, azkenik, Indamendira. Etxabe berak oroitzen zuen urte batzuk beranduago, 1963an, OARGUIk bultzatuta San Lorente ermitan zaharberritze lanak egin zirela, eta amaieran, Erramu egunean, ekitaldi bat izan zela, txango kultural bat.



OARGUIko kideak Indamendiko gurutzea eraikitzen, 1955 urtean.

OARGUI 40ko hamarkada amaieran eratu zen Gipuzkoan, Estatu mailako OAR (Obra Atlético Recreativa) antolakundearen adar moduan. Era berean, OAR dependientea zen Ekintza Katolikoaren gaztediekiko eta, modu labur batean esanda, gazteen benetako beharrei eta arazoei erantzuteko zerbitzu gisa kontsideratzen zen. OARGUI Donostian sortu zen lehenengo, Elizbarrutiko Seminarioan, eta 50eko hamarkadan zehar Gipuzkoako hainbat herritan hedatu zen, *Juventudes Parroquiales* deituriko taldeetatik abiatuta. Urte batzuk beranduago, 1966an, gutxienez 23 talde zeuden lurraldean banatuta: Ataun, Tolosa, Azpeitia, Irun, Ormaiztegi, Legazpi, Zumaia, etab. Gipuzkoako kasua, Estatu mailan, salbuespena dela esan daiteke, OAREk orokorrean zentro bakarra baitzuen probintzia gehienetan, hiriburuan. OARGUI, ordea, probintzia-mailako erakundea izan zen.

Hasiera-hasieratik OARGUIk gazteen aisialdiaren arazoa azaleratu zuen, eta aisialdi osasuntsua, alaia, moralizatzailea eta apostolikoa garatzeko gai izango ziren gazte-erakundeak sortzeko beharra ere. Ezaugarri horiek izateaz gain, azken bereizgarri bat ere nabarmentzen zuten talde honetako arduradunek, urte batzuk beranduago, 1961an, OARGUIren araudian ere jasoa izango zena: taldeak apolitikoa

behar zuen izan. Hala ere, ustez apolitikoa zen arren, agintariak oso goiz hasi ziren OARGUI zein beste talde batzuen egoera legala zalantzan jartzen, haien ustetan apostolutza-lanak egiteko aitzakiarekin beste eragile batzuen antzeko jarduera politikoak garatzen baitzituzten. Horrez gain, beti susmatu izan zuten kleroak gazteengan izandako eragin edo influentzia abertzaleaz. Mesfidantza horren adierazleetako bat da, adibidez, Zumaian OARGUIko hainbat kide, urte batzuk beranduago Herri Gaztedin ere arituko zirenak, atxilotuak izan zirela 60ko hamarkada hasieran.



San Lorente ermita.

Taldeko kide izandakoek azaltzen dutenez, OARGUIren helburuetako bat euskal giroa zabaltzea zen, hizkuntza sustatzeaz eta tradizioak berreskuratzeaz gain. Bestalde, garatutako ekintzei dagokionez, adituek diote ez zirela oso desberdinak mende hasierako nazionalistek egindako jarduerekin alderatuta: mendizaletasuna, antzerkia, herri-tradizioak, etab. Neurri batean urte batzuk lehenagoko talde eta mugimendu

abertzale zaharren jarraitutasun edo segidatzat ere har liteke, elkarte katolikoek eskaintzen zioten espazioa eta babes aprobetxatzen jakin zuena. Izan ere, Elizak begi onez ikusten zuen gazteriak aisialdi osasuntsua sustatzeko eta herriaren tradizioen jarraipena egiteko zuen grina eta borondatea. Horrela, progresiboki, OARGUI izaera abertzalea zuen aisi-eskaintza bihurtzen joan zen, eta errepresioa areagotu zen; esaterako, Gobernadore Zibilak hainbat ekitaldi debekatu zituen, Elizaren babes-mantuaren azpian *izaera separatista nabarmeneko jarduerak* egiten zituztelakoan.

Finean, esan genezake OARGUIk aisialdiko jarduerak sustatzen zituela, baina ez soilik gazteek beren denbora librea betetzeko zuten beharrari erantzuteko, zentzu jakin bat emanez baizik: giro osasuntsua eta euskalduna bultzatzea. Era berean, Elizaren eta zenbait sektore abertzaleren arteko interesen konbergentziaz hitz egin genezake helburu horiek lortzera bidean, euskal kleroaren alderdi jakin batek abertzaletasunarekiko zuen sentzibilitateak eraginda. Horrela, alde batetik, Elizak euskal izaerako jardueren potentzialitatea aprobetxatu zuen gazteria erakartzeko eta, bestetik, abertzaletasunak Elizak eskainitako azpiegitura eta gordelekua baliatu zuen bere hazkunderako.

Zumaiako kasura bueltatuz, antzeman daiteke Herri Gaztediko *lehen belaunaldia* osatu zuten ekintzaile gehienak aurrez Luistarrak, Mariaren Alabak edo OARGUI taldeetako kide izan zirela, edo gutxienez horien bueltan egondakoak. Izan ere, haien esanetan, Eliza zen *zirrikitu bakarrenetako bat* frankismoaren diktadurari ihes egiteko, eta, beraz, ez dagoela ulertzerik Herri Gaztedi frankismoa gabe. Era berean, diote Vatikanoko II. Kontzilioaren testuinguruan somatzen zutela Eliza aldatzen hasia zela, edo bazegoela horretarako aukera. Ordura arteko kristauak, euren inguruan ezagutzen zituztenak, *eskubitarak* zirela aipatzen dute. Eta, justuki, *ezkertiar kristauak* sortu beharretik jaio zela Herri Gaztedi gure herrian, printzipio nagusi gisa marxismoa, kristautasuna, abertzaletasuna eta euskera izango zituen.

3.2. Baserri Gazteditik Herri Gaztedira

1965 urtean jaio zen Herri Gaztedi, aurrez existitzen zen Baserri Gaztedi deituriko mugimenduaren eboluzio edo jarraipen gisara. Honakoa, ordea, ez zen aldaketa nominal soil, deiturari bakarrik zegokiona, gizarteak bizitako bilakaera produktibo, sozial eta kulturalen ispilua baizik.

Baserri Gaztedi 1953an jaio zen Gipuzkoan, eta urte batzuk

beranduago, 60ko hamarkada hasieran, iritsi zen Bizkaiara. Hasierako urte horietan, mugimenduak nekazarien arazoak aztertzen zituen batik bat: beti lanpetuta zeuden, irabazi gutxi zituzten, ez zuten eskolatzeko era egokirik, elkartasunik gabe eta gizartetik baztertuta zeuden, etab. Besteak beste, mugimenduak bilatzen zuen gazteak eskolatzeari, *buruz janztear*, kristau ikasbidean oinarrituta. Hasiera batean, bereziki Vatikanoko II. Kontzilioaren aurretik, zeregin hori *ia erabat kulturala* zen.

Ordura arte, hedatuta zegoen apaizari *munduko gauzetan nahastea* ez zegokionaren ideia. Baina, pixkanaka-pixkanaka, apaiz kontseilariak sakristiatik irten eta gazteekin ibiltzen hasten dira, horiek dituzten arazoak bizitzen hasten direlarik. Horrela, elizkizunak gidatzen dituen *gizaki kulturala* izateaz haratago, apaiz kontseilaria *gazteriaren hezitzailea* ere bihurtzen da, *bizitza profanoan* txertatuta ere badagoena.

Etaparen honetan, ondoren Herri Gaztedin gertatuko denaren kontrara, gazteen heziketa *maila indibidualetik* begiratzen da nagusiki. Gainera, esan daiteke ikuspegi determinista nabarmena ere bazuela, gazte bakoitzak *bere bizitzak eskatzen dionari erantzuten ikasi* behar zuela uste baitzuten: “nekazaria bada baserrian, langilea bada lantegian

eta emakumea bada sukaldean". Izan ere, zioten bakoitzak bere lekuan zuela *zertan aurreratua* eta horretan saiatu behar zuela.

Horri estuki lotuta, mugimenduak defendatzen zuen Baserri Gaztedik ez zuela *politikarik* egin behar, ez baitzuen gizarteko arazoetan *sartu* behar, ez behintzat *zuzen-zuzenean*. Era berean, aipatzen zen beharrezkoa zela *hobeto bizitzeko moduak* bilatzea edo *aurrerapenak bideratzen* saiatzea, baina hori ez zela mugimenduari *zuzenean zegokion xedea*. Baserri Gaztedi, beraz, mugimendu bezala, ezin zen sartu *konpromiso temporalean*⁵, baina bertako ekintzaileak, aldiz, sar zitezkeen —eta "sartu behar zuten"— maila pertsonalean.

Baserri Gaztedik lortuko zuen *zer onik* urte horietan, Paulo Iztuetaren iritziz. Batetik, aipatu beharra dago mugimendua bera antolatzea eta *herrian* txertatzea erdietsi zela, eta, bestetik, *koadroak* prestatzea. Gainera, adituek diote *nekez* aurkituko dela garai horretan Baserri Gaztedi bezalako *erakunde herritar* bat. ETA sortu berria zen, oraindik ez zeukan azpiegitura sendorik eta, gainera, beste *giro* batean, guztiz desberdina, jaio zen: unibertsitateko ikasle-giroan.

Atal honen hasieran adierazitako moduan, gizartearen eraldaketa produktibo, sozial eta kulturalen eraginez, Baserri Gaztedik, bere ideiek eta, noski, honen jardunak bilakaera sakona bizi izan zuten, eta horrekin batera mugimenduak aldaketa nominala ere izan zuen, inondik inora ez zena deituraren aldaketa soil. Iztuetak azaltzen duenez, *izenarekin batera izana* aldatu zuen.

Izen aldaketa 1965 urtean gertatu zen, baina kontuan izan behar da ez zela bat-bateko gertaera bat izan, azken urteetan euskal gizartea bizitzen ari zen bilakaera progresiboaren emaitza edo ondorioa baizik. Hasiera batean, mugimendua nekazariei eta horiek bizi zituzten arazoei zegoen zuzenduta, baina Herri Gaztedik herri-kapa zabalagoak hartuko zituen Baserri Gaztedirekin alderatuz, nahiz eta hasierako urteetan ekintzaileak nekazari-mundutik zetozten gehienbat:

- Herrietako jendea, bere bizimodu guztia baserrian egiten duena.
- Herrietako jendea, baserrian jan eta lo egin eta lana *kalean* egiten duena.

⁵ 1966. urtean, *Gazte: Erri Gaztedia* aldizkariaren seigarren alean, modu honetara definitzen zen *konpromiso temporal*: "Munduarekiko ekintza bat da, iraunkorra eta eratua, erakunde eta egiturei begira eginga, aitormena egiteko asmoz, eta pertsonak osatuz taldeak aurreratzeko egiten dena". Hasiera batean, ekintzailea gaztea den bitartean, esaten zen ezin zezakeela *konpromiso temporal* osoa

hartu bere gain; bai, ordea, gisa horretako lanetan zebiltzanei hau edo hori egiten lagundu, noizean behin parte hartuz. Horri *ekintza temporal* deitzen zitzaion. Ekintzailea *heltzen* zenean, ordea, ezin zitekeen konforme egon *noizbehinkako ekintza* horrekin bakarrik, eta orduan benetako *konpromiso temporal* hartu behar zuen.

- Herri txikietako jendea, nahiz eta baserrikoa ez izan.

Hau da, gizarteko beste sektore batzuk ez ziren oraindik sartzen mugimenduaren barruan, nahiz eta horiekin ere existitzen ziren noizbehinkako harremanak; konkretuki, *proletalgoa* eta *ikasleria*⁶ aipatzen dira. Beraz, ikus daiteke lehen urte horietan nekazari-mundutik zetozele ekintzaileak, eta horrek, neurri handi batean, mugimenduaren lehentasunak markatzen zituela. Helburuen artean, honakoa nabarmentzen zen: baserritarrak produkzio-bideen jabe egitea, *bere sektorearen sozializaziora iristeko*.

Joseba Zulaikak, bere jaioterri den Itziarko esperientzian oinarrituta, eta bereziki ETArekin kasua ardatz gisa hartuta⁷, aipatzen zuen datu soziologikoek agertuko luketela bertan militatzen zuten gazteak ez zirela izan baserritarrak portzentaia txiki batean besterik, baina beharrezkoa zela soziologikoki ez ezik kulturalki ere begiratzea, baserria *euskal gizarte tradizionalaren eredu eta irudi sinbolikoa* ere bazelako bizibideaz haratago. Beste modu batera

esanda, ofizioz baserritarrak ez ziren arren *jaiotzaz, familiaz, edukaziaz, lagunarteaz* eta *herri sentimenduaz* baserritarrak ziren erabat, eta ez *kaletarrak*. Zulaikaren esanetan, *aberriaren askatasunaz* interesatzen eta *borroka klandestinoan* murgiltzen zen gaztea ez zen baserrian bizi kasu gehienetan; bai, ordea, baserri giroan jaio eta hazitakoa, baserritik urrundua bizitzera *behartuta* zegoena: seminarioan, fabrikan edo *zentro urbano* batean. Gizarte tradizionalaren eta bertako bizi-ereduaren gainbehera euren azalean bizi zuten gazte haientzat iraultzak esanahi konkretu bat zuen, modu inplizituan: *guztia gal dadin baino lehen, euskal gizarte bertakoa errekuperatu*.

1966ko *urteko lanaldiaren* erabakiak jaso zituen dokumentu batean Gipuzkoako Batzordeak, eta bertan ere antzeman daitezke zenbait desberdintasun eta aurrerapen Baserri Gaztedi mugimenduarekin konparatuta. Besteak beste, erabaki hauek hartu eta honako ekintza-lerroak definitu ziren:

⁶ Argitu beharra dago proletalgoa eta ikasleria kontzeptuen gaineko adiera ez dela analisi marxistan oinarritzen. Izan ere, alde batetik, proletalgoaz hitz egitean ez diote erreferentzia egiten jabetza modu egonkorrean eskuratzeko aukerarik ez duen langile-klasearen baitako gizarte-sektoreari, zuzenean edo zeharka bere lan indarra saldu beharra duena eta diru-sarrerak lanaren bitartez —eta ez kapitalari esker— eskuratzen dituenak, baizik eta geruza horretako azpisektore pobretu eta nagusiki hiritarrari, tradizio eta kultura multzo jakin batzuk dituenak. Bestetik, ikasleriaren kasuan, esan beharra dago ezaugarri edo bereizgarri konkretu batzuk eduki

arren, ez dela gizarte-talde homogeen bat, eta horren baitan gizarte-klase ezberdinetako kideak topa daitezkeela.

⁷ Itziarko kasu partikularrean, Zulaikak azaltzen du gazteen kontzientziaziorako plataforma moduan funtzionatzen zuela Herri Gaztedik, eta hemendik jende ugari ETArako preparatuta irteten zela. Beraz, jarraian ETako militanteek aipatzen diren ezaugarriak Herri Gaztediko ekintzaileei ere estrapolatu daitezke, neurri batean behintzat, asko izan baitziren mugimendu batetik bestera salto egin zuten gazteak.

- Mugimendua zabaldu eta eguneratzea.
- Herri-arazoa erantzukizunez sakontzea. Horretarako, folklorismoa utzi eta herri-kontzientzia *sentimendu hutsean* ez baizik eta *arrazoietan* sustraitzea.
- Erlijio-arazoa argitzea, lehengo molde erlijiosoek ez baitzuten gazteria betetzen. Horrek beste maila bateko erlijio-bizitza eskatzen zuela zioten, ekintzaile bakoitza konpromisora zeramana.

Denboran aurrera egin ahala, nekazalgoari aipamenak eta erreferentziak gutxituz doaz, eta 70eko hamarkada inguruan geroz eta ohikoagoa da Euskal Herri Langileaz⁸ (gasteleraz, Pueblo Trabajador Vasco), langileriaz edo langile-klaseaz hitz egitea Herri Gaztedik. Aldi berean, askapen nazionalaz gain askapen sozialaren beharraz mintzo da mugimendua, biak euskal iraultzaren bi alderdi moduan kontsideratuz, *txanponaren bi aldeak*. Hala ere, nazionalismoa gainditu beharreko arrisku moduan definitzen hasi zen, eta klase-borrokak izaera internazionalista izan behar zuela aldarrikatu zen, bestela euskal borrokak zentzurik ez zuela argudiatuz.

3.3. Herri Gaztediren oinarriak

1965 urtean, eraberritutako Gazte aldizkarian Herri Gaztedi mugimenduko kide batek jasotzen zuenaren arabera, Herri Gaztediren helburua *gazteak hezi eta kristautzea* zen. Izan ere, mugimenduaren iritziz, helduak dituen ahalmen guztiak gazteak ere badituen arren, ez ditu osatuak. Horrela, gazteak *erdi osatuan mundura etorri diren izakiak* izango lirateke. Uste zuten gaztea *adimenez, nahimenez, askatasunez, inguruko gauzez eta bestekoitasunez* osatu behar zela, eta, aldi berean, *Jainkozaletasuna* osatu eta bere bizitzari *erlijio kutsua* eman behar zitzaiola. Justuki, heziketa litzateke horretarako bitartekoa: lan luze eta mantsoa, haien hitzetan heldua ez baitzen urte batean edo bitan egiten.

Gazte aldizkariaren bigarren etapa honen lehenengo alean aipatzen da Herri Gaztediren tesi nagusietako bat: *heziketak konpromisoa ekarri behar du*. Izan ere, zioten gaztea *bere inguruko ezbehar, arazo eta zailtasunen aurka jaiki* behar zela; hau da, gertakizun horien aurrean *postura bat hartu* behar zuela. Herri Gaztediren egitekoa litzateke gaztea ekintzara bultzatzea. Hala ere, mugimenduaren egitekoa hori izan arren, aurrerago aipatzen da

⁸ Adrián Almeida historian doktoreak honako argipena egiten du Euskal Herri Langileak kontzeptuaren inguruan: "sozialismoak eta

abertzaletasunak askatu beharreko bi subjektuen sintesi gisa definitzen zen: langileria eta euskal herritarak, hurrenez hurren".

berezkoa zuela joera hori gazteak: ezbehar baten aurrean min hartu eta erantzun bat emateko sugarra sortzen baitzitzaion.

Ekintzaren zergatiei dagokienez, honakoak aipatzen ziren:

- Gazteak bere ekintzailetasuna egunero agertzen du, ez baita besteak egindakoarekin konforme. Berak egin nahi ditu gauzak.
- Gazteak jardunari ekiten dihonean, konturatu egiten da bere kemenaz eta neurtu egiten ditu bere indarrak, eta ohartarazi egiten da bere betebeharrak.
- Bere buruaren jabe egiten da, bide onak aukeratzen ikasten du eta sarritan kaskarreko asko hartu ere bai.
- Ekintzak edozer gauzaren zergatia eta iturburuaren bila jartzen du gaztea, baita horren egilearen bila ere.

Mugimenduaren izaerari erreparatuz gero, horrela definitzen zuen 1967 urtean Herri Gaztedik bere burua: gazte-, heziketa-, herri- eta eliz-mugimendua. Testu horren bitartez, Batzorde Nagusiak udan ospatu behar zuen Batzarraren aurretik argitaratu zena, azken denboran mugimenduaren izaerari, ideologiari eta honek auzi konkretuen gainean zuen posizioari buruz agertu ziren zalantzei edo kezkei erantzuna eman nahi izan zitzaion. Izan ere,

bertan aipatzen zen asko zirela kanpotik *zaunka* ari zirenak, baina baita mugimenduaren barrutik ere kasu batzuetan, zenbait ekintzailek ez baitzekiten agertzen *mugimenduaren mamia*.

1) **Gazte-mugimendua:** Gazteei esperientzia ezberdinak bizitzen lagunduko zion bitarteko moduan ulertzen zen Herri Gaztedi, bizitzako maila edo arlo bakoitzean bere tokia aurkitzen jakin zezaten. Era berean, mugimenduak gazteak ekintzara bultzatu nahi zituen, baina ez edonolako ekintzak gauzatzera: gizartearen eta pertsona guztien *ona* bilatuko zutenak. Azkenik, kontziente ziren aurrez aipatutako guztia posible izan zedin eta mugimenduak *benetakoa* zein *errealista* izan nahi bazuen, beharrezkoa zela honakoa gazteen bizitzetan *sustraitua* egotea, haiek *daramatzaten bideetaz* jabetuta.

2) **Heziketa-mugimendua:** Heziketari lotuta, honako helburuak erdietsi nahi zituen Herri Gaztedik: mugimendua osatzen zuten gazteen erantzukizunaren zentzua esnatu, une bakoitzeko egoera konkretuari buruz analisi egokia egiten ikas zezatela, momentuko gertakizunak edo gorabeherak etengabe aztertze gaitasuna izatea, egoera bakoitzak eskatzen zuen borrokan parte hartze bakoitzeko borondatea lantzea, etab.

Horri lotuta, aipatzen zen heziketak, bere baitan, *baztertu ezineko* hiru alderdi dituela:

- Pertsonari buruzko ikuskera: Gizakiak dituen ahalmenak kontuan izan behar zituen ekintzaileak, hala nola: arrazoimena edo erabakiak hartzeko gaitasuna. Bestetik, mugimenduak pertsonari buruz zuen ikuspegia honetan oinarritzen zen: ezinbestekoa du ekintzan murgiltzea, eginez joaten baita gizaki moduan garatzen.
- Biharko herriaren proiektua edo ametsa: Pertsona guztiek eskubide eta betebeharrak berdinak dituztela —edo, hobe esanda, izan behar lituzketela— oinarri hartuta, gizartea zer modutara antolatu ikusi edo hausnartu behar zela zioen Herri Gaztedik, hori posible izan zedin. Karl Marxen *Crítica al Programa de Gotha* testuko esaldi ezagun hura ekarri diezaguke burura ideia honek, ezinbestean ekoizpenaren jabetza kolektiboa galdegiten duena, baina inondik inora ez duena esan nahi pertsonako banaketa berdina behar dela izan: “bakoitzak bere gaitasunen arabera, bakoitzari bere beharren arabera”.

- Herriaren aldeko erakundeak: *Giza-pentsaera* instituzioek egin edo baldintzatzen dutela adierazten zen: eskolak, egunkariak, telebistak, etab. Zentzu horretan, etsaiari lehiatu beharreko gudu-zelaia zela ondorioztatzen zen, eta tresna horien eraketak berebiziko garrantzia zuela.

Hiru ziren, nagusiki, Herri Gaztedik heziketaren auziarekin lotuta jartzen zituen bitartekoak:

- Ekintza: Pertsonak *ekinaz egiten* diren kontzepzioak zen nagusi mugimenduaren baitan. Era berean, ulertzen zuten ekintzaren bidez beste norbanako zein kolektibo batzuekin hartuemanean jartzen zela ekintzailea, eta sozializatzea behartzen zuela. Gainera, ekintzailea ohartzen da besteen beharra duela ekintzak gauzatzeko⁹. Eta, azkenik, ahalmen edo gaitasun ugari lantzerantz behartzen du ekintzailea, erantzukizunak hartzerantz: *adimena zorroztu, borondatea indartu*, etab.
- Gogoeta: Aspektu honi garrantzia handia ematen zion mugimenduak, *ekintza hutsean* jarduten zuten pertsonak *arisku handien azpian* zeudela iritzita: *ekintzakeria, handikeria* eta *itxaropenik eza*. Aipatutako

⁹ Iruñerriko Langileen Autodefentsa Sareak (LAS) ideia hori ongi islatzen zuen leloa erabiltzen zuen duela urte batzuk, soldatapeko esparruan garatutako borroka irabaztean, langile-klasearen

elkartasunaren eta batasunaren potentzialitatea azpimarratzeko asmoz: “Hik bakarrik ezin, elkarlanean aitzin”.

arriskuei aurre egiteko, ekintzaileak horiek aztertu behar zituen eta horien inguruan hausnartu, bakarka zein taldean.

- Ikasketa: Ekintzatik jaso dituen *datuak* eta errealitateari buruz egindako gogoetak ikastea ezinbestekotzat jotzen zuen mugimenduak, bestela *moralismoan* erortzeko arriskua bailegoke. Ikasketa prozesu horren bidez, ekintzaileak gai izan behar luke beste pertsonen aurrean bere pentsamendua azaltzeko, modu egokian ulertarazteko eta *kondairan* sustraitzeko, gizarteko arlo edo auzi ezberdinetan.

3) **Herri-mugimendua**: Herri Gaztedi, beste edozein mugimenduren moduan, errealitate konkretu batekin aurkitzen da, herri edo lurralde zehatz batean garatzen du bere jarduna, zeinak *giro*, *jakintza-maila*, *pentsakera* eta *arazo* berezi batzuk dituen. Justuki, Euskal Herrian aurkitzen da, eta bere herriaren *ona* bilatzen du, beste herrietako mugimenduek euren lurraldean egiten duten gisara, nahiz eta posible den *tarteko jomugak* berdinak ez izatea. Helburu horren baitan, Herri Gaztedik euskal gizartearen eskubideak defendatzea zuen xede. Izan ere, Euskal Herriak *kondaira*, *hizkuntza*, *ohitura* edota *herri-eraketa* bereziak dituela interpretatzen zuen, eta, beraz, bere etorkizuna aukeratzeko

eskubidea; hala nola, arlo politikoan, ekonomikoan edo kulturean. Amaitzeko, argitu beharra dago herriaren *ontasunaz* eta *eskubideez* hitz egitean erreferentzia egin nahi zitzaiola horiek berdintasunean banatzearen eta guztientzat izatearen garrantziaz.

4) **Eliz-mugimendua**: Laugarren aspektu hau zen, Herri Gaztedi beraren esanetan, mugimendua *bere-berea* egiten zuen ezaugarria, beste hainbat talde definitu baitzitizkien gazte-, heziketa-edota herri-mugimendu moduan. Herri Gaztedik, Elizarena bezala definitzen zen gazte-mugimendua izanik, bere eginkizuna aurkitu behar zuela zioen Elizaren betekizunaren barnean, eta bertan sustraitu. Hala ere, kanpora begira jardun hori garatzen zuen era berean, mugimenduak ulertzen zuen Elizaren barnean ere zeregin handia zuela. Besteak beste, Elizaren baitan existitzen ziren tentsioetan, *indar aurrekoien* eta *indar atzerakoien* artekoak, lehenengoan aldean lerratzea.

1967ko udako Batzarrean, justuki, mugimenduaren ideologia egongo zen eztabaidagai, besteak beste. Aldizkarian argitaratutako testua, beraz, aurrez landu behar zen herrietako talde guztietan, eta ezinbestekotzat jotzen zen *responsableek* gai horri buruz formakuntza edukitzea. Batzordea osatuko zuten *bazkideak*, guztira 28, honakoak izango ziren:

- Bailara bakoitzeko neska-mutilek aukeratutako delegatu bana.
- Gaztetxo mugimenduaz arduratzen direnek hautatutako lau ordezkari.
- Elizbarrutiko komisia osatzen duten guztiak.
- Elizbarrutiko Gaztetxoen konsiliaria.
- Elizbarrutiko Gazteen konsiliaria.

1969 urtean, Gazte aldizkarian argitaratutako beste testu batean, aipamena egiten zitzaion berriz ideologiaren auziari, gogora ekarri bi urte lehenago aldizkari bertan publikatutako artikulua eta Herri Gaztediren Batzarrean egondako eztabaida. Bertan aipatzen dena azaldu aurretik, beharrezkoa deritzot argitzea Herri Gaztedi mugimendu dinamikoa izan zela, garaian garaiko testuinguru politiko zein sozialak baldintzatua, eta, horrenbestez, bere ideologia, oinarriak eta jarduna ere aldatzen joan zela urteen poderioz. Zentzu horretan, Paulo Iztuetak defendatzen du 1969an Herri Gaztediren historian fase berri bat zabaldu zela: *Mugimendua marxismoarekin elkartzea*. Garrantzitsua iruditzen zait argipen hau egitea, horrek lagun baitakiguke bi testuen arteko desberdintasunak edo ñabardurak ulertzen eta interpretatzen.

Testuaren edukian sartu aurretik, etapa berri horren jatorria edo zergatiak izango ditut hizpide. Iztuetak azaltzen duenez, garai hartan ekintzaile ugari espetxean edo erbestean zeuden, batez ere Bizkaiko kasuan. Ahulezia egoera hori baliatuz, hainbat mugimendu eta antolakunde politiko Herri Gaztediren inguruan agertzen eta bertan txertatzen hasten dira, euren militanteak bertan parte hartzera sustatuz eta, aldi berean, beren ideia zein planteamendu politikoak hauspotuz. Iztuetak dio mugimenduaren zuzendaritzako kideen eta sektore ezberdinetako arduradunen artean euren *hautu politikoa* egin zuten pertsonak zeudela, *proselitismoa* egitera dedikatzen zirenak. Horrela, pixkanaka-pixkanaka mugimendu politikoentzat baliagarria den *plataforma* modura hasiko da funtzionatzen Herri Gaztedi, aurrerago azalduko dudan moduan.

1967ko Batzarra ospatu eta bi urtetara argitaratutako testu berrian, mentzioa egiten zaio bertan eztabaidatu zen testuari, uda baino lehen Gazte aldizkarian argitaratu zena. Jatorrizko testuan Herri Gaztedi *euskal eta rural mugimendu* gisara definitzen zen, eta testu berrian matizatzen zen bi adjektibo horien bidez herri txikietako nekazariei aipamena egiteaz gain, *langileei* —eta, konkretuki, herri handietako zein hirietako proletalgoari— ere egin

nahi zitzaiola erreferentzia. Horrela, 1969ko testuan, *Erri-gaztediaren ideologia eta langilletza* deiturikoa, Herri Gaztedi *euskal-langile-baserritar mugimendu* izendatzen da.

Gainera, argi uzten da *herri bat besterik* ez dagoela Euskal Herrian: *zapalduen herria*. Konkretuki, zapaldutako subjektuak *langileak* eta *baserritarrak* izango lirateke, eta zapaltzaileak, aldiz, kapitalistak, *herriaren aurka lanean ari diren indibiduo* moduan definitzen zituzten, *atzerritarrak ez ezik euskal izenekoak* ere izan zitezkeenak. Zapaldutako subjektuei dagokionez, aipatzen zen talde horren parte ziren pertsonen artean bi *talde-lokarri* ikusten zituztela:

- Zapalketa berdinen mende egotea.
- Herri berezi bat izatearen kontzientzia edukitzea.

Horri lotuta, adierazten zen Herri Gaztedi osatzen zuten, horri laguntza eskaintzen zioten eta mugimenduan itxaropena zeukaten denak *hoietakoak* zirela, hau da, zapalduen bandokoak. Aurrez aipatutako guztiagatik, Herri Gaztedi *klasista* zela zioten, edo beste modu batera esanda, ez zela *interklasista*, eta, beraz, *langile mugimendu zabalean* konprometituta egon behar zuela *ahal duen neurrian*.

Azkenik, ondorio modura, aipatzen zen, batetik, langile-kontzientzia garbia ontzat hartzen ez zuen ekintzaileak ezin zezakeela tokirik aurkitu Herri Gaztedin. Izan ere, argi uzten zen langile-klaseko taldea zela, eta langileriarekin zegoela lerratuta mugimendu gisara. Hori horrela, ezin zezakeen bere barnean hartu langileen aurkako joera edo jarrerak zituen —edo izan zitzakeen— inor. Bestetik, testuan azpimarratutako bigarren ideia nagusia zen borroka ideologikoa sustatzearen beharra, langileria baitan klase-kontzientzia hedatuz eta, modu horretara, borroka-tentsioa sortzen ahaleginduz. Horretarako, nagusiki bi bide ikusten ziren: gazteen heziketa bultzatzea eta horiei planteamendu politikoak —ekintza— diseinatzen zein aurrera eramaten laguntzea.

Justuki, atal honi amaiera emateko, modu sakonagoan izango ditut aztergai Herri Gaztediren izatea eta jarduna hobekien definitzen duten bi alderdi horiek, hau da, heziketa eta ekintza, ezinbestean elkarri lotuak ageri direnak eta ezin daitezkeenak ulertu bata bestea gabe.

- 1) **Heziketa:** Orain arte adierazi dugun moduan, heziketa da Herri Gaztediren eginkizun nagusia, edo nagusietako bat ekintzarekin batera. Heziketari lotuta, ezinbestean aipatu behar dugun aspektu bat Gazte aldizkaria da. 1965 urtean, **Gazte:**

Erri Gaztedia aldizkariaren lehen zenbakian, aipatzen zen aldizkaria ez zela *oraintxe sortua*, bazituela urte batzuk. Izan ere, ordura arte **Gazte: Baserri Gaztedia** zuen izena. Era berean, azaltzen zen aldaketa asko izan zituela aldizkariak, *beste gauza guztiak bezalaxe*. Herri Gaztediko komisiok aipatzen zuen *askotxori* lagundu ziela hainbat kontu argitzen, baina *buru-hauste* asko ere eman zizkiela aldizkaria ateratzeak. Hala ere, zailtasunak alde batera utzita berriz aldizkaria ateratzea erabaki zuten.

Komisiok adierazten zuen lehen eta orain helburu berdinak zituela Gazte aldizkariak:

- Ekintzaileari bere lana zuzentzen lagundu.
- Mugimenduko berriak edo albisteak zabaldu.
- Gai berezi batzuetaz sakondu.
- Ekintzaileari idazten hasteko bide bat eman.

Aspektu guzti horiek kontuan izanda, ondorioztatzen zuten aldizkaria ekintzaileentzat zela. Era berean, argitzen zuten beharrezoa zela bakoitzak ale bat izatea, gai batzuk behintzat *ikasi* egin behar baitziren. Izan ere, errebista hau ez zen irakurri eta alde batera uzteko, ekintzaile guztien laguntzarako baizik; horretarako, ezinbestekoa zen *behin baino*

gehiagotan irakurtzea. Gainera, zioten *beste aldizkarietan bilatzen* ez zutena eman nahi zietela ekintzaileei. Besteak beste, honetan lagunduz:

- Haien ekintzaile bizitza aztertzen.
- Kristau iritziak aurkitzen.

Horrez gain, argitzen zuten Gazte aldizkariak ekintzaile guztien beharra zuela, bakoitzak zegoen tokitik ahal zuena eginaz. Ekintzaileak, hala nola, honakoa egin zezakeen: errebista hartu, ondo irakurri eta hausnartu, kritika bat eginaz eta bere iritziak adieraziz Komisiolari idatzi, lantzeko gai posibleak proposatu, zabaldu ekintzaile guztiengana iritsi zedin, etab. Amaitzeko, zioten Gazte aldizkaria *denen eskuetan* zegoela, eta ekintzaileek zenbat garrantzi ematen zioten hainbeste lagunduko ziela.

Beste modu batera esanda, heziketa ez zen ekintzaileak modu pasiboan jasotzen zuen zer bait, aktiboki parte hartu behar zuen jarduera baizik. Izan ere, *heziketa-metodologia* horrek bere fruituak eman zitzaizkien, beharrezkotzat jotzen zen ekintzaileetako bakoitza *exijentziak, konfiantzak* eta *elkarlaguntzak* ezaugarritutako taldean integratzea; konkretuki, xede horrekin sortu zen Herri Gaztedi.

Markatutako helburuak lortzeko, mugimenduak *barne-mailako metodologia* bat garatu

zuen, *Bizitzaren azterketa* (gazteleraz, Revisión de vida) deiturikoa. Metodologia hau ez zen *teoria hutsean* oinarritzen, *praktika* ere sustatu nahi zuen Herri Gaztedik horren bidez. Era berean, argipen moduan, aipatzen zen *ekintza hutsean* geratzeak *bere arriskuak* zituela, eta ezinbestekoa zela *ekintzaileen burua ideiez ere aberastea*. Horregatik, mugimenduari *laguntza teorikoa* eskainiko zioten pertsona *ikasien* partaidetza garrantzizkotzat jotzen zen.

Hala nola, *Bizitzaren azterketa* metodoaren bitartez, honako jomugak erdietsi nahi ziren:

- Gazteen nortasuna osatuko zuten giza-balioak eta balio kristauak eskaintzea.
- Gazteak haien arazoei buruz kezkatzea eta horien inguruan hausnartzea.
- Momentuari eta gertakari zehatzei egokitutako analisi-gaitasuna izatea, ikuspegi orokorraz gain.
- Aurrez deskubritutako eta analizatutako arazoari erantzuteko, modu aktiboan borrokatzea.
- Erantzukizun pertsonalaren zentzua garatzea.
- Kontzientzia-hartzea, ikuspegi kritikoa eta arrazoibide pertsonala sustatzea.
- Justizia- eta askatasun-grina bultzatzea.

- Etorkizuneko herri baterako oinarriak egituratzen joateko itxaropena indartzea.

Mugimenduaren helburua pertsonaren prestakuntza integrala garatzea zen. Hau da, ekintza puntualak eta isolatuak egiteaz gain, formakuntzak ahalbidetu behar zuen gazteak Euskal Herriko arazo sozial, laboral edota herrikoiekin konpromiso osoa hartzeko gai izatea. Hala nola, heziketak bilatzen zuen ekintzaile orok, hausnarketa eta azterketa-metodoa oinarri hartuta, herri-egoeraz jabetzeko gaitasuna izatea, euskal kultura ezagutzea, langile-kontzientzia garatzea, ekintza-mailan jartzea edo bere inguruko balioez kontzientzia izatea.

Heziketari lotuta aipatutako helburu guzti horiek lortzera bidean, Herri Gaztedik hainbat tresna eta bitarteko erabili zituen, unean uneko beharren arabera: bilerak, mintegi-saioak, ekintzak, irakurgaiak, galdera-erantzunak edo galdekizunak, analisiak, etab. Zentzu horretan, mugimenduak zioen baliabide guztiez baliatu behar zutela, kontuan izanaz *zer puntu konkretutan* hezi nahi zuten gaztea, bitarteko batzuk *besteek baino gehiago* balioko zietela aintzat hartuta.

Gazte: Erri Gaztedia. Ekintzaile guztien aldizkariaren hirugarren zenbakian, 1966an argitaratu zena, galdekizuna

deituriko teknika planteatzen zaie gazteei *ikastera begira*, euren eguneroko bizitzako hainbat arlo edo aspekturi lotutako hainbat galderen bidez: erakundeak, herria, helduak, gazteak eta ekintzaileak. Teknika horrek xede zuen *jendearen masifikazioaren eta esklabo bihurtzearen* aukeraren aurrean alternatiba bat sortzea, *gazteak osatuaz* horiek askatzeko bide bat eraikitzea. Hala nola, honako galderak egiten zizkieten gazteei:

- Uste duzu herritik kanpo ikastera doazenak itzultitakoan hobeto konprenitzen dituztela herriko lagun eta problemak eta erantzun bat ekartzen dutela, edo etenda gelditzen direla herri eta langile bizitzatik edota lotsatu egiten direla langile, herritar eta euskaldun izateaz?
- Zure herriko helduak elkartzen al dira okerrak zuzentzeko, hutsuneak betetzeko edo inizatibak sortzeko?
- Zure herriko gazteak bideak ipintzen al dituzte efikazia baten bila edo amets eta protesta hutsetan gelditzen dira?
- Ikasten saiatzen diren gazteak, zer helbururekin egiten dute? Helburu burges edo indibidualistak medio direla? Modan dagoelako? Ala herria jasotzearen?
- Ekintzatik sortutako konpromisoak ikastera bultzatzen al zaitu?
- Oraindik konpromiso eten edo koskorretan gelditzen zara ala bazoaz bizitzaren konpromiso iraunkor baten bila?
- Ba al dakizu euskaraz irakurtzen eta txukun idazten? Irakurtzean gauza arinak eta azalekoak bakarrik bilatzen dituzu, edo saiatzen zara zure iritziei oinarri sendoa ipintzen?
- Elkarriketak, eguneroko hartuemanak, etab. aprobetxatzen al dituzu ikasteko?
- Nolako posturan ikusten dituzu aldizkariak, zinea edo telebista?

Galdera horiek eta gehiago, alde batetik, ekintzaileak edo gazteak eurak hausnarketa zein errebisio propiorako erabiltzea zen xedea, beraien burua hobeto ezagutzeko eta beraien jarduteko moduak ezagutu eta kuestionatu ahal izateko. Bestetik, aldizkariko erredakzioak eskatzen zuen galderen erantzunak —*izenerakin edo gabe*— bidal zitzaten Herri Gaztediren Donostiako egoitzara: *Getari 15'ra*. Erantzun horiei esker, mugimenduak modu sakonagoan ezagutu zezakeen bere barne-egoera eta ekintzaileen ezagutza-maila, analisirako gaitasuna edo konpromisoa zer-nolakoa zen une horretan.

2) **Ekintza:** Aurrez azaldu bezala, Herri Gaztediren egiteko nagusia gaztea ekintzara bultzatzea zen, eta horrela jasotzen zen bere hainbat idatzi eta argitalpenetan. Hala ere, xedea ez zen edonolako ekintzak sustatzea, zentzu edo norabide konkretu bat izango zutenak baizik. Azken hori posible izan zedin, beharrezkoa zen ekintzaileen heziketa eta ekintzen inguruko gogoeta, bakarka zein taldean, *ekintzakeria* bezalako arriskuak ekiditeko asmoz. Hala ere, 1970ean argitaratutako *Heziketa eta ekintza* testuan, alderantzizko noranzkoan ere jartzen da fokoa, adieraziz mugimenduak ekintzaileak *konpromisoan hezi* nahi bazituen, nahitaezkoa zela *konpromisoa hartu, bizi* eta *betetzea*, hau da, ezinbestekoa zela ekintza.

Artikulu horretan bertan, aurrerago, adierazten da ordurako *nahiko garbi* zutela mugimenduko kideek ekintzaren beharra heziketarako, baina *beste alderdi batetik* zetorrela zailtasuna: ekintza horiek zer eratakoak behar zuten izan. Konkretuki, ekintzak arlo hauetan banatzen ziren:

1) **Politizaketa:** Iraultza posible izan dadin, beharrezkoa da masak *kontzientziatu* eta *martxan* jartzea, hau da, *herri-talde handiena* politizatzea, bere egoeraz jabetu dadin. Politizazioa

izan behar da gazteen *ekintza-iturria*, bitarteko ezberdinen bidez lor daitekeena: hartu-emanak, hitzaldiak, talde-ekintzak, etab.

2) **Ideologizaketa:**

Politizaketaren bigarren maila moduan har daiteke ideologizaketa. Ez da nahikoa sentimenduetan oinarritzen den politizazioa, ezinbestekoak dira *sustrai sakonagoak*. Analisi zehatzak behar dira, eta *ideologia sano* batean oinarritutako programa politikoak, *demokrazia giroko sozialismoaren bila* zuzentzen direnak.

3) **Gaztedia:** Aurreko bi puntuak egokien bete zitzakeen subjektua gaztedia dela uste zuen mugimenduak, sisteman *gutxien integratuta* zegoena baitzen. Era berean, *gizarte salaketari ekiteko gertuen* zegoen gizarte-sektorea zela ere ondorioztatzen zen, garaiko *ustelkeria* ikusteko aukera gehien zuena. Baina ez bazen gaztediarekin —behar bezala— lana egiten, aurreko beste belaunaldi batzuen antzera *kontsumo gizartearen harietan nahasturik* bukatzeko arriskua existitzen zen.

4) **Kulturizaketa:** Herri bati, bere garapenerako, beharrezkoa zaio kultura *estrakto* bat, eta horretan sakontzen ari diren ekintzaileak herria egiten ari

dira. Hizkuntza, kultura eta herri-kontzientzia estuki lotuta ulertzen ditu Herri Gaztedik. Kulturizaketaren baitan euskal nortasunaren kontzientzia bizkortzen duten ekintza guztiak sartzen dira.

5) **Lantoki mailako ekintza:**

Mugimenduaren esanetan, lantokia *gizarte aldaketarako instrumentu eta plataforma* da. Bertan ematen den ekintzaren bitartez, langileriak sistemaren kontraesanak garbiago ikusten ditu. Greba izan ohi da lantokiko ekintza ezagunena, baina aipatu beharra dago eguneroko jardunik gabe ez dela posible izango grebak abiatzea. Ekintza mota hau herri-borrokaaren baitan kokatzen du Herri Gaztedik.

6) **Herri-ekintza:** Herria *kontrolatzeko zuzenduak* dauden ekintzak eta herriko jendearen zein instituzioen aurrean garatzen direnak barnebiltzen dira talde honetan, kontzientzia sortzera zuzenduak daudenak.

7) **Eliz alderdia:** Herri Gaztediren xedea zen ekintzaileak *mundu-ekintzarako hezte*a, baina horretan *kristauki* jokatzeko, hau da, *sinismenaren motibazioak* eraginda eta horren *exijentziek* diotenaren arabera. Sinismena *praktikara* eraman behar dute ekintzaileek. Guzti horri lotuta, argigarriak

iruditzen zaizkit Joanito Dorronsororen hitz hauek: "Zerua beste munduan ez ezik, mundu honetan saiatu behar degu egungo gizartea zero bihurtzen: klase-borroka, langileen alde jokatu, Euskal Herria askatu, sozialismoa eta iraultza, zapalkuntzak ezabatu".

Zazpi arlo horiek *bat bestearekin katiatuak* agertzen direla aipatzen zen testuan, *elkarren artean nahastuta* zeudela, nahiz eta bakoitzak bazuen *zerbait berezia*. Ekintza guzti horiek planteatzeko moduari dagokionez, argipen moduan adierazten zen posible zela horiek martxan jartzea ibilbide bat zuten taldeetan, baina ez *hasiberriak* zirenetan. Talde horietan *beste tipo bateko* ekintzak planteatu behar zirela zioten, hala nola: kirola, mendi irteerak, jaialdiak, etab. Ekintza horiek ez ziren sartzen, Herri Gaztediren esanetan, *herri borrokaren barnean*, baina horrekin *harremanetan* zeuden. Izan ere, *behar bezala planifikatuta* bazeuden, gazteak erantzukizunak hartzera eta ekintzan murgiltzera bultzatuzakeen, eta, pixkanaka-pixkanaka, ideologizaketaren beharra ikusten zuten gazte horietako askok.

Ekintzaren nolakotasunari dagokionez, hainbat detaile lantzen dira *Ekintzaren teknika* testuan, 1968an argitaratua. Lehenik eta behin, argipen moduan aipatzen zen era

bateko edo besteko helburuak lortzeko teknika ezberdinak erabili behar zituela ekintzaileak. Teknika aipatzean, *metodo baten barnean sartzen diren alderdi guztiei* egiten zitzaion erreferentzia. Gainera, azpimarratzen zen teknikak eskabide edo baldintza konkretu batzuk dituela bere barnean:

- **Planteamendu sakona:** Herriaren egoera ondo aztertzea eta aurkitzen diren kontraesan zein alienazioei buruz *kontzientzia garbia* izatea, *eskema garbi* eta *sakonen* bidez.
- **Analisia:** Edozein planteamenduren hasieran existitu behar da gizartearen egoeraren, bertan aurkitzen diren *indarren* eta mugimenduak horren baitan duen paperaren eta zereginaren gaineko analisia. Helburuen iturburua izan behar da analisia.
- **Helburuak:** Ekintza ez da helburua bere horretan, tresna edo bitartekoa baizik. Ingurua, giroa eta mugimenduaren aukerak aztertu ondoren erabaki beharko litzateke zer helburu lortu nahi diren, eta zein teknika den egokiena horiek erdietsi ahal izateko, ez alderantziz.
- **Tresna edo ekintza:** Helburuak definitu ostean, mugimenduak *berauek lortzeko bideak urratzen*

hasi behar du, eta hori ekintzaren bidez egingo da. Tresna edo bitarteko konkretuaren hautaketan *kontu handiarekin jokatu* beharko da, batez ere helburuekin koherentzia izan dezaten, bestela *analisiaren eta ekintzaren artean etena* sor baitaiteke. Teknikaren xedea, justuki, *lokarri logikoa* izatea da.

- **Ekintzaren planifikazioa:** Adibide baten bidez azaltzen da pauso hau. Planteamendua eta analisia egin ostean, mugimenduak erabaki du helburu gisa ezartzea gazteak hausnartzera bultzatzea, eta horretarako, tresna moduan *galdekizuna* hautatu du. Helburuak lortzeko, planifikazio egokia beharrezkoa izango da:
 1. Galdekizuna nola egin.
 2. Galdekizuna nola zabaldu.
 3. Bakarkako hartu-emanak.
 4. Noiz eta nola bilduko den galdekizuna.
 5. Ondoren gazteak nola sartuaraziko diren ekintza-mailan.
- **Ekintzari buruz gogoeta:** Bukatzeko, aurrean helburuak eta ekintzaren planteamendua izanda, gogoeta egin beharko du mugimenduak, prozesuan zehar egindako hausnarketari gehituko zaiona. Azken gogoeta hau analisi berriaren iturri zein

abiapuntu izan behar da, heziketa lana *etengabeko lokarria* bihur dadin, *bukaerarik gabeko haria*.

3.4. Antolaketa eredua

Alde batetik, Herri Gaztedi mugimenduaren baitan existitzen ziren figura politiko eta ardura ezberdinak izango ditut aztergai atal honetan, eta, bestetik, Zumaia eta inguruetakoko taldeak nola antolatzen ziren. Orain arte, batez ere ekintzaileen paperaz zein funtzioaz aritu naiz, baina argitu beharra dago antolaketa ereduari dagokionez mugimendu konplexua izan zela Herri Gaztedi, tokian toki ere forma desberdina hartu zuena. Horrez gain, aipagarria da taldeak bi multzo nagusitan bereizten zirela, Herri Gaztediren estrategia orokorraren baitan bere helburu propioak zituztenak ekintzaileen ezaugarrien zein profilaren arabera: lehen mailako taldeak eta erdi mailakoak.

Figura politikoei dagokionez, ekintzaileaz haratago honakoak bereiz genitzake, besteak beste:

- **Taldeko arduraduna edo responsablea:** Ohar moduan, mugimenduak adierazten zuen ekintzaile oro zela, bere horretan, *responsable*. Baina, era berean, bazirela arduradun funtzioa hartu zutenak, *batzuk gogoz eta besteak konpromisoz*. Arduradunak bailara mailakoak, herrikoak edo taldekoak izan zitezkeen. Horien

eginbehar nagusia zen pertsonak hezitzea, *giza- eta kristau-mailan osatzea*. Bere funtzioei dagokionez, aipa genitzake bilerak prestatzea eta dinamizatzea, horietan ekintzaile guztiek parte hartu dezaten sustatzea, taldean diziplina giroa sortzea, ekintzaile bakoitzaren indarguneak zein zailtasunak ezagutzea, zailtasun horiei bien artean aurre egiten saiatzea, etab. Zentzu horretan, aipatzen zen responsablearen lana *zaila baina ederra* zela. Arduradunak mugimenduaren *koadroak* izango lirateke.

- **Gaztetxoaren arduraduna edo responsablea:** Gazte-ekintzaz haratago, garrantzizkoa ikusten zuen mugimenduak gaztetxoena, eta horiek *ekintzarako bitartekoak* edukitzeko zuten *eskubidea* azpimarratzen zen. Horrez gain, horiekin lana egitearen potentzialitatea legoke; izan ere, aipatzen zen gaztetxotatik *hezibidea hartu* dutenak *zimentu onak* izan zituztela gazte bezala ekintzailetasunean erantzuteko. Gaztetxoaren taldeetako responsableak gazteak izan ohi ziren, hogeitaz inguru zituztenak. Arduradunek betebeharrak nagusi hauek zituzten:
 - Gaztetxoekiko benetako dedikazioa edukitzea.
 - Norekin lan egiten ari diren jakitea. Izan ere, *gaztetxoa pertsona da, baina ez pertsona gaztea*.

- *Buruz janzteko beharra* sentitzea, gaztetxoak hezitzeko zer jokabide hartu behar duen jakin ahal izateko. Horretarako, ezinbestekoa da ikasketak egitea, bilerak ondo aprobetxatzea, irakurtzea, hartu-eman bereziak izatea, etab.

Responsableen ezaugarriak dagokionez, honakoak aipatzen ziren:

- Gazteak izanik ere, *heldutasun maila egoki batera* iritsi izana.
- Gaztetxoekin *sarri eta erraz* hartu-emana edukitzea.
- Ahal dela, *mutilak mutilen* arduradun izatea, eta *neskak neskena*.
- *Borondate onaz jantzia* izateaz gain, jakin behar du *non, norekin eta nola* egin behar duen lan.

Aldi berean, garrantzizkotzat jotzen zen gaztetxoekin lan egiteko izendatutako ekintzaileak berak aukeratu izana ardura hori hartzea. Horrek, neurri batean behintzat, adierazten zuelako gaztetxoek heziketarako *gogoa, joera, ilusioa* eta *bokazioa* zuela.

Arduradunek hainbat bitarteko erabil zitzaizkien gaztetxoek heziketarako, hala nola: txangoak, mendi irteerak, meriendak, etab. Ekintzak egiterakoan, hainbat aspektu izan behar zituzten kontuan. Alde batetik, gaztetxoak eurak

aukeratu behar zituzten ekintzak edo, gutxienez, horien hautaketan parte hartu modu aktiboan; hau da, ez zituen arduradunak inposatu behar. Eta, bestetik, behin ekintza aukeratuta, arduradunen eginbehera litzateke ekintza egituratzea *detaile guztiekin* eta hausnartzea ekintza horrek zer ekarri lezakeen eta nora iritsi nahi den horren bitartez: elkarrekin hartu-emana sortzea, konfiantza hartzea, etab.

Talde hauetako —eta, orokorrean, mugimenduko— arduradunak *duda sortzaile* izan behar zirela defendatzen zuen Herri Gaztedik, eta ez inolaz ere *errezeta emaile*. Hau da, ekintzaileei *duda zorrotzak* sortarazi behar zizkieten, horrek eragindako *bilaketari* ekin diezaion. Hori litzateke dinamikaren, ekintzaren zein konpromisoaren aurrekaria. Konpromisoaren auziari lotuta, honakoak izan zitezkeen gaztetxoek edo ekintzaile hasi berriek, pixkanaka-pixkanaka eta modu progresiboan, hartu beharreko zenbait ardura:

- Herriko edo bailarako giro ezberdinetan sartu.
- Lagun jakin batzuekin gauza edo arazo konkretuez hitz egin.
- Herriko talderen batekin alfabetatze lanak aurrera eraman.
- Informazioa jaso eta inguruan zabaltu.

- Herriko premia berezietarako dirua bildu.
- Herriko gertakizun nabarmenen harira sortzen diren ekintzetan parte hartu.
- Ibilaldiak, hitzaldiak, txapelketak, etab. antolatu, horiek herri-borrokara zuzentzeko helburuarekin.
- Liburuak irakurri, aztertu eta eztabaidatu.
- Norbera dabilen tokiko (fabrika, eskola, etab.) ekintza txikietan parte hartu.
- Gazteekin lan egin beraien heziketan laguntzeko xedearekin.

Arduradunak, aurrez adierazitako guztiaz gain, taldea osatzen zuen gaztetxo bakoitza *sakonki* ezagutu behar zuen, horien motibazioak, arazoak edota kezkak zeintzuk diren jakiteko. Horretarako, *bide egokienetako bat* litzateke bakoitzarekin hartu-emanak izatea. Konkretuki, honako alderdiak lirateke ekintzaile bati buruz responsableak ezagutu beharrekoak:

- Bere dohain eta ahalmenak.
 - Bere problematikak eta arazoak, eta bizitzan jarraitu duen bidea.
 - Bere nahiak, zaletasunak, ametsak eta momentuan gehien interesatzen zaiona.
- **Konsiliariaoa:** Herri Gaztedi *seglarren* mugimendua zen,

ekintzaileen esku zegoena. Baina Elizaren mugimendua izanik, apaizek *gidatzen* zuten, konsiliarioek. Hala ere, adierazten zen gainontzeko ekintzaile edo responsableentzat konsiliariaoa ez zela izan behar —soilik— *errespetu* edo *itzal handiko* apaiza, baizik eta beste edozein ekintzaile bezala tratatu behar zutela, herri edo bailara mailako programa aurrera eramaten lagunduko zuena. Beste modu batera esanda, *laguntzaile* bat bilatu behar zuten apaiz konsiliarioan. Eta konsiliararioaren kasuan, argi eduki behar zuen herri edo eskualde bateko gazteak ezin zirela inolaz ere bere *akolitoak* izan, eta bere lana izan behar zela beraien arazoetan sakontzea eta zituzten nahiak lortzen laguntzea.

Finean, konsiliararioaren lana zen *sinismenean hezitzaile* izatea gazteentzat, eta hori lortzeko esku artean zituen bitarteko guztiak jartzea martxan, behar zezaketen edozertan laguntza eskeiniz, *egunez zein gauez, jai eta aste, etxean eta kanpoan*. Eta arduradunen kasuan azaldutako moduan, ez dena berak eginaz, baizik eta gazteak hortara bultzatuz.

Azkenik, atal honi amaiera emateko, Zumaia eta inguruetako taldeak antolatzen ziren moduari buruz zenbait apunte edo zertzelada egingo ditut. Garaiko ekintzaileek oroitzen dute astean

behin elkartzen zirela bilerak egiteko, asteburuan. Bilera luzeak izan ohi ziren, eta noiz edo noiz goizeko seiak arte luzatzen ziren, ekintzaileetako batzuk goizean goiz lanera joan behar zuten arren.

Zumaia zen nukleo nagusia, eta hor egiten ziren, orokorrean, asteburuetako bilerak, apaiz etxean, eta bertan hartzen ziren erabaki guztiak eta hortik ateratzen ziren ekintza denak. Noiz edo noiz bilerak beste leku batzuetan ere egiten ziren; adibidez, Arroa Goian, Indamendi atzean edo Aizarnazabalen, betiere Atxaga apaizaren baimenarekin. Zumaikoaz gain, beste talde txikiak ere baziren: Oikia, Aizarnazabal, Itziar, Aizarna, Arroa Goia, etab. Bilerak ere aprobetxatzen zituzten talde horietako bakoitza nola zijoan ikusteko.

Gainera, Zumaian ere baziren gaztetxoek taldeak, Herri Gaztediko kideek dinamizatzen zituztenak. Elkarriketatutako ekintzaile batek, herriko azken *zelula* osatu zuenetakoa, oroitzen du nola Herri Gaztediko kide baten etxean hasi ziren bilerak egiten, 15-16 urte inguru zituztenean berak eta kuadrillakoek. Hasiera batean, bilera horiek Herri Gaztediko kide batek gidatzen zituela, eta modu batera edo bestela mugimenduari binkulatuta zeudela. Zumaian egiten zituzten bilerez gain, Aste Santuan eta udan kanpora ere

joaten ziren: Urbia, Nafarroa, etab. Irteera edo kanpaldi horietan, aisialdiko hainbat jardura egiten zituzten, baina gauetan bilerak egiteko tarteak ere hartzen zuten.



Zumaiako gaztetxoek taldea, 1967-68 urte inguruan, Berueten (Nafarroa) egindako kanpaldian.

3.5. Auzi konkretuen gaineko posizioa eta mugimenduaren jarduna

Bosgarren puntu honetan, uztartzen ahaleginduko naiz, batetik, Herri Gaztedik Zumaian aurrera eramandako jarduna eta horrek izandako adierazpen konkretuak eta, bestetik, mugimenduak hainbat auzi konkretuen gainean zuen posizioa. Hau da, saiaturiko naiz ikusarazten Herri Gaztediren planteamendu politikoaren eta praktikan garatzen zuen jardunaren, esaten eta egiten zenaren, ideien eta ekintzen artean existitzen zen koherentzia-maila.

Hala ere, auzi konkretu horietan murgildu aurretik, hainbat aipamen egin nahi nituzke Zumaian garatutako jardunaz eta mugimenduak bizi izan zuen bilakaeraz. Aurrez azaldu dugu ekintzaileen lehen belaunaldiko

kide gehienak Elizaren bueltako taldeetan aritu zirela, eta kontziente zirela Eliza izan zitekeela zirrikitu bat diktadurari ihes egiteko. Gainera, beharra identifikatzen zutela ordura arte existitzen ziren kristau eskubitarren aurrean ezkerreko alternatiba bat sortzeko. Talde horiez gain, ekintzaileek diote dagoeneko bazeudela beste mugimendu ezkertiar batzuk Elizatik haratago, *mesianiko* moduan definitzen dituztenak. Baina beraiek, garaiko gazteek, zerbait *praktikoa* bilatzen zutela, eta horregatik sartu zirela Herri Gaztedin. Bertan, herrian lana egiteko konpromisoa hartu eta garatu zuten, heziketaren eta ekintzaren bidez.

1) Ekintza aldarrikatzaileak eta elkartasuna: Zumaian zein Euskal Herri mailan egondako gertakari ezberdinen aurrean, Herri Gaztedik elkartasuna adieraztea edo salaketa egitea xede zuten hainbat ekintza aldarrikatzaile egin zituen, hala nola:

- 1968an, Txabi Etxeberrietaren erailketaren ostean, meza antolatu zuten, eta hor *plantatu* zitzairen *Napoleon*. ETAko militantearen heriotzak belaunaldi oso bat modu nabarmenean markatu zuela diote garaiko ekintzaileek.
- 1969an, Zumarragako Orbegozo lantegian izan zen grebaren

testuinguruan, bertako langileei elkartasuna adierazi eta babesa eman zieten, hainbat ekintzen bidez.



Orbegozoko langileak 1969 urtean Zumarragako parrokiako sakristian.

- 1970an, Burgosko prozesuaren ostean, abenduaren 29an Ministro Kontseiluak indultua —edo hobe esanda, heriotza zigorren konmutazioa— eman zuenean, San Pedro parrokiako kanpaiak blokeatu zituzten gantxo batekin Herri Gaztediko ekintzaileek. Haien hitzetan, herriko beste *indarrekin* izan zituzten harremanen *puntu gorena* izan zen Burgosko auzia.



San Pedro parrokiako kanpaia.

- 1972an, Joxe Benito Mujika 'Xenki' ETAko militante zarauztarraren erailketaren ostean, haren jaioterrian antolatutako manifestazioan parte hartu zuten ekintzaile zumaiairek

ere. Manifestazioaren aurretik, Zumaian mugimenduak zuen *multikopistaren* bidez, panfletoak prestatu zituzten bertan banatzeko. Manifestazioan zehar, polizia argazkiak ateratzen aritu zela oroitzen dute. Hori dela eta, bukatu bezain laster multikopista zaku batean sartu eta harraldera bota zuten.

Gertakari konkretu horiez aparte, azken urteetan Herri Gaztedin aritu ziren ekintzaileek gogora ekartzen dute *beti* zeudela manifestazioak, zaurituak, atxiloketak, etab. Gisa horretako gertaeren aurrean, Beheko plazan asanbladak egiten ziren, eta bertan Herri Gaztediko kideek ere parte hartzen zuten, gainontzeko talde, mugimendu eta alderdietako militanteekin batera. Batzar horiek bukatzean, ohikoa zen batzuk “gora Euskadi askatuta” eta besteek “gora Euskadi gorria” oihukatzea. Azken urte horietan¹⁰ Herri Gaztedin aritzen zirenak bigarren aldarri horren aldekoak ziren, eta *espainolistak* izatearen akusazioak jaso zituzten. Hala ere, esan beharra dago urte batzuk lehenago atera zela *ildo abertzale* bat ere Herri Gazteditik, zeinak gerora

ETako Fronte Kulturallean, LAIAn (Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia) edo Komando Autonomo Antikapitalistetan militatu zuten. Bi tendentzien arteko talkak ugariak izan ziren, eta horren ondorioz haserreak egon ziren, harremanak moztu zituzten, etab.

- 2) **Etorkinak:** Herri Gaztediko ekintzaileek gogoan dute lan oso interesgarria egin zutela Zumaia lanera etorri ziren gazteekin, *erdaldun jendearekin*. Maria eta Jose Ikastetxe zaharrean alfabetizazio eskolak jarri zituzten martxan gazte horiekin; esaterako, Torreagan lanean ari zirenekin. Garaiko ekintzaileek oroitzen dute alfabetizaziorako Rikardo Arregik hil aurretik bere lagun Andoni Sagarnari enkargatu zion *Soziologiaren hastapenak* liburua erabiltzen zutela, beste hainbaten artean. Izan ere, alfabetizazio soilaz haratago, kontzientziazio-lanari ere garrantzia handia ematen zioten.

1971 urtean argitaratutako *Emigranteak burrukan* testuan Herri Gaztedik aipatzen zuen azken urteetan *hemengoen* eta *inmigranteen* arteko zatiketa existitu zela, baina gero eta

¹⁰ Paulo Iztueta eta beste hainbat autoreren arabera, 1973 urte inguruan amaitu zen Herri Gaztediren jarduna eta existentzia mugimendu gisara, nahiz eta Ainhoa Arozamenak dioen 1976an hasi zela mugimenduaren gainbehera. Justuki, Zumaia *azken zelula* osatu zuten hiru kideetako bi elkarrizketatu ahal izan ditut, eta bata 1975 eta besteak 1976 urtera arte mugimenduko ekintzaile izan zirela baieztatzen dute. Herri Gaztediren

Donostiako egoitzan biltzen jarraitzen zuten eta bertatik pasatzen ziren propagandarako zein formakuntzarako material bila. Garai horretan, Andres Osa ‘Sakona’ apaiz agustinoa zen konsiliario nagusia, eta bera marxista izateak eragin nabarmena eduki zuen mugimenduaren azken urteetako joeran, baita ekintzaileek hartu zituzten ibilbideetan ere. Zumaia *azken zelulako* kasuan, hanka bat Herri Gaztedin eta bestea EKE alderdian zuten.

gehiago zirela euskal langileriak aurrera zeraman gatazkan txertatu ziren etorkinak, eta horrek, modu batera edo bestera, hainbat auziri buruzko hausnarketa zein autokritika egitearen beharra azaleratzen zuela.

Hasteko, fenomenoaren kausak aztertzeke xedearekin, zioten *errealitate politiko eta ekonomiko* baten ondorioa besterik ez dela inmigrazioa, konkretuki gizarte feudaletik gizarte kapitalista baterako aldaketa edo trantsizioa adierazten duena. Hau da, Espainiako Estatuak *nekazari herrietatik* alde egin beharra *industrializatutako lurraldeetara*.

Inmigrazioa burgesiak hainbat arlotan bere mesedetara egokitu zuela azpimarratzen zuten. Ekonomiari dagokionez, etorkinek bizi zuten *situazio garratza* aprobetxatu zuen industriari *abiada* emateko, *lan-indar merkearen* esplotazioaren bidez. Politika mailan, leku batetik bestera *mugiarazi* zituzten nekazariak Euskal Herriko eta beste nazioetako *errealitate kultural eta historikoa* ulertzeke ahalmenik gabe aurkitzen ziren, Estatuak bultzatutako *analfabetismoaren* eta despolitizazioaren ondorioz. Eta, horrek, hainbat talka eragin zituen bertako langileriaren eta kanpotik etorritakoaren artean, bata bestea etsai gisa

kontsideratuz, Estatuaren eta burgesiaren mesedetan.

Era berean, beldur handia existitzen zen ea inmigrazioak euskal kulturaren zapalkuntza areagotuko ote zuen. Horren harira, aipatzen zen *askatasunaren jabe* ez den herri batek ezinbestekoa zuela etorkinak txertatzea herriak bizi zuen *errealitate historikoan*, hau da, *euskal langileriaren iraultza sozialistaren prozesuaren* bidean.

Zentzu horretan, autokritika egiten zen hainbat eskualdetan etorkinekin lan egiteko erabilitako metodoen inguruan, horiek inolaz ere ezin zezaketelako bermatu inmigranteen integrazioa. Koncretuki, seinalatzen zen euskal burgesia txikiaren interesak lehenetsi izan zirela askotan, eta horiek *uztartu ezinak* zirela etorkinenekin. Inmigranteen interesak, ordea, bateragarriak ziren guztiz euskal langileriarenekin, *dinamina sozialista batean* txertatuta.

- 3) **Emakumearen papera:** Baserri Gaztedi eta Herri Gaztediren baitan aldatzen joan zen urteen poderioz emakumeak mugimendu horietan zuen papera. Hasiera batean, Baserri Gaztedin ematen —edo inposatzen— zitzaion paper nagusitakoa zen baserria eta *tradizioak* bermatzea. Gerora, sustatzen hasi zen emakume batzuk baserritik atera eta herri

zein hirietan andereño moduan aritzea, euskararen transmisioa bultzatzeko. Horrez gain, lehen ikusi dugu nola garai horretan mugimenduan gizartean nagusi zen lanaren banaketa sexuala erreproduzitzen zela, esaterako, afirmatuz gizonen eta emakumeen heziketa desberdina izan behar zela eta bakoitzak *bere bizitzak eskatzen dionari erantzuten ikasi* behar zuela —soilik—; emakumearen kasuan, sukaldeko gauzak.

Herri Gaztediko garaietan, pixkanaka-pixkanaka, aldatzen joan zen mugimenduan emakumeak zuen papera edo *estatusa*. Hau da, emakumeak ere *ekintzaile* eta *responsable* moduan jarduten hasi ziren, eta ez bigarren mailako subjektu bezala, ordura arte mugimenduak identifikatzen zituen beharrei erantzuten ziena lan konkretu batzuk betetz: baserriko tradizioen transmisioa, neskametza lanak, ikastoletan euskararen irakaspena, etab. Zumaian mugimenduaren parte izandako emakumeek ere aitortzen dute Herri Gaztedin militatzen hasi zirenetik sentitu zutela bizi eredu irekiago bat ari zirela deskubritzen, *monjen bizimodua* atzean utzita. Gainera, mugimenduan zebiltzan garai berean emakume ekintzaileetako ugari soldatapeko lanean hasi ziren, arlo produktibo ezberdinetan. Horrek balio izan zien, haien hitzetan, konturatzeko *klase*

konponentea ezinbestekoa zela emakumearen zapalkuntza interpretatzeko; izan ere, oso gaztetan lanean hasi izanak egin zien ohartzea *jabeak eta morroiak* ez zirela berdinak, genero berdinekoak izanda ere.

- 4) **Ikastolak eta heziketa:** 60ko hamarkadatik aurrera, denbora gutxian *ugaritze handia* bizi izan zuten Gipuzkoan eta Bizkaian ikastolek, *euskerazko eskolek*. Herri Gaztediren esanetan, ikastolak Euskal Herriaren eraikuntzan *pieza garrantzitsuenetako bat* ziren. Ikastolak bere ingurunearekin erlazioan ulertzearen beharra azpimarratzen zen, argi izan behar baitzuten zein arazo edo errealitateri egin behar zieten aurre: sistema kapitalistaren menpe zegoen herri bat, zeinetan herritar batzuek —burgesia— beste batzuk —langileria— esplotatzen zituzten, bi estatu faxisten morrontzan aurkitzen zena, sasi-erlijioz inguratuta zegoena, kontsumoan oinarritako gizarte batean kokatzen zena, bere hizkuntza ia itota zuena, etab. Errealitate estruktural horrez gain, ikastolek beste hainbat zailtasun edo gabezia zituzten: proiektu hasiberria zen, andereño askok ez zituzten ulertzen edo ezagutzen ikastolen helburuak, herrietako arduradun gehienak burgesak edo burges girokoak ziren, etab.

Herri Gaztediren esanetan, haurrek ikastoletan ikasi behar zutena zen *justizia, maitasuna,*

egiazko bakea, berdintasuna eta besteak norbera baino gehiago maitatzea, besteak beste. Hori litzateke *kristau ikasbidea*. Finean, ikastoletako heziketak *pertsona askeak* izaten erakutsi beharko lieke gazteei, sistema kapitalistaren aurka eta sozialismoaren alde jardungo zuten ekintzaileak izan zitezten. Hau da, ikastolak ez zirela soilik izan behar euskara irakasteko espazioak. Baina hori posible izan zedin, beharrezkoa zen andereñoak jabetzea heziketaren helburuez. Horretarako, ezinbestekoa zen gizarteko arazoez *jantzita* egotea. Baina ez soilik plano teoriko batean, mugimenduak defendatzen baitzuen *erakusteko bizi egin behar zela, herritarra* izan.

Zumaiako kasura etorrira, Herri Gaztedik paper garrantzitsua jokatu zuen ikastolaren sorreran zein garapenean. Esaterako, astero-astero rifak saltzen aritzen ziren, edo San Telmo festetan ospatzen zen *berbenaren* izaera aldatu zuten, ikastolarentzat diru biltzeko ekimen bihurtuz. Bestalde, ekintzaileek oroitzen dute egon zen eztabaida nagusietako bat izan zela ea ikastolan erlijioa irakatsi behar zen edo ez, eta berdina marxismoaren kasuan.

- 5) **Afektibitatea, harremanak eta bizi-eredua:** Zumaiako taldearen baitan, hainbat eztabaida, hausnarketa eta esperientzia praktikoa existitu ziren auzi hauen inguruan.

Esaterako, ekintzaileek oroitzen dute eztabaida ugari izaten zituztela bikote harremanen edota ezkontzen inguruan, eta hortik ateratako hausnarketen eraginez, esaterako, ezkontzak mendian egiten hasi ziren, *txabolan*. Bestalde, taldean behin baino gehiagotan izan zuten aztergai *komuna* bat osatzeko aukera; izan ere, *lehen kristauek* guztia konpartitzen zuten. Justuki, ekintzaileetako batek zioen *pentsatu, esan eta egiten zutenaren arteko koherentzia handiena* existitzea bilatzen zutela, eta horrela, azkenean, Herri Gaztediko ekintzaile batzuk, beste talde batzuetako kideekin batera, erabaki zuten *taldean* bizitzea.

Beste alde batetik, Herri Gaztedi mugimendua, maila orokorrean, afektibitatea eta heziketa sexuala bezalako gaiak lantzen hasi zen, eta garrantzia dexente ematen zien, ***Gaztetxoan sexual eziketa*** edo ***Afektibidadea eta bere heziketa*** deituriko artikulua argitaratuz, beste hainbaten artean.

- 6) **Lana, lantokia eta sindikalismoa:** Herri Gaztedik lanari, lantokiari eta borroka sindikalari buruz zuen posturak aztertu aurretik, garaiko ekintzaileek garrantzia handia ematen dioten pasarte bat ekarri nahi nuke gogora. Zumarragako Orbegozo fabrikak Zumaiara etorri nahi zuen. Bilera bat deitu zen enpresaren asmoen berri

emateko, eta tartean Herri Gaztedi ere gonbidatu zuten bilerara. Izan ere, terrenoa Elizarena zen, eta Hernanin lortu zuen moduan, Zumaian ere *debalde* eskuratu nahi zuen enpresak. Herri Gaztediko kideak kezkatuta zeuden Orbegozo enpresa Zumaia etortzeak izan zitzakeen ondorio posibleekin, eta horregatik parrokoari gutun bat idatzi zioten, *Zumaia zer zetorren* galdetuz. Izan ere, ekintzaileek uste zuten enpresa herrira iristeak eragingo zuela *kanpotik preparazio gabeko* lan-indar ez kualifikatua etorri beharra, eta, aldiz, ordurako jada gertatzen ari zen bezala, bertako gazteak kanpora joaten segi beharra. Azkenean, lortu zuten Elizaren erabakiaren baitan Herri Gaztedik ahotsa izatea. Eztabaidaren ostean, terrenoa ez uztea eta, beraz, Orbegozo Zumaia ez etortzea erabaki zen. Horren ondorioz, Zumaia alkateak zein bestelako ordezkari politiko ugarik Herri Gaztediko gazteei esan zieten *herria hondatu* zutela, *etorkizuna jokoan* jarri zutela, etab. Baina eskubitik *egurra* jasotzeaz gain, ezkerretik ere jaso zituzten kritikak; adibidez, batzuek akusatu zituzten Orbegozori etorrera debekatu zitzaiola ez zelako nahi herrian langile mugimendua sortzea edo indartzea.

Bestalde, pasarte hau albo batera utzita, ekintzaileak lantokian izan beharreko

jarrerari dagokionez, Herri Gaztedik zioen ezinbesteko garrantzia zuela ekintzaile bakoitza bere lantokian zeuden arazoen aurrean *sakon* konprometitzea eta langileek bere eskubideen alde aurrera daramatzaten borroketan abangoardia edo gidari izatea. Hala ere, kontziente ziren kasu askotan mugimenduko ekintzaileen jarduna eta jarrera ez zirela egokiak ez eredugarriak. Izan ere, haien ekintzailetasuna edo militantzia soilik bileretara edo ekintza konkretuetara mugatzen zuten, astean ordu gutxi batzuetara. Baina mugimenduak argi adierazten zuen bizitzako une eta egoera guztietan izan behar zutela ekintzaile, eta bereziki lantokian, bertan igarotzen baizituzten *egunean ordu gehienak*. Hau da, ez zuela ekintzaile *izena* merezi lantokian —edo beste edozein esparrutan— ajolagabekeriaz jokatzeko inork.

Borroka sindikalaren auziari lotuta, 1969an Herri Gaztedik zioen Euskal Herrian oraindik ez zela existitzen *langileak elkartu eta horien interesen alde askatasunez jokatzeko* zuten sindikaturik, baina uste zutela posible izango zela denbora gutxian aukera egotea *sindikatu askeak* sortzeko eta langileklasearen aldeko borroka egiteko lan esparruan. Hala ere, kontziente ziren ordura arte sindikalismoak Mendebaldeko Europako beste herrialde

batzuetan erakutsitako mugez edo arriskuez. Esaterako, aipatzen zuten zenbait sindikatu *ondasun* batzuk eskuratzearekin konformatzen zirela, *estrukturak zeuden bezala* onartuz, eta hori *sekulako garaipena* zela kapitalismoarentzat, *bere etsai beldurgarriena mantsotu eta sistemaren barruan uztarpetu* egiten duela. Eta, gainera, ezin zitekeela ahaztu mendebaldeko langileriari eskaintzen zitzaion *bizimodu erosoa* bermatzea soilik posible zela *munduko nazio behartsuetako pertsonen miseria eta gosearen kontura*.

- 7) **Biolentziaren erabilera:** Biolentziari dagokionez, 1968an Herri Gaztedik zioen auzi honen inguruan gizartean hedatutako iritziak *sinpleak, nahastuak eta goitik behera ezarritakoak* zirela. Horrela, indarkeria soilik kontsideratzen zen *iraultzaileek* egiten zuten metodo edo bitarteko batzuen erabilera; adb. bonbak jartzea. Ez zen, ordea, kontsideratzen biolentzia pertsona bati edo gizarteari *bere osotasunera iristeko* behar dituen bitartekoen ukapena. Hau da, Beltzak esango lukeen moduan, *sistema bere hortan uzteak bermatzen duen krudelkeria*.

Biolentzia estruktural horren azpian bizi zen langile-klasea Euskal Herrian. Baina zioten *iskanbila* bakarrik sortzen zela zapaldutako subjektu eta herriak Estatuaren biolentziari biolentziaz erantzuten

ziotenean, horren tiraniatik askatzen saiatzen zirenean.

Beste alde batetik, uste zuten iraultzaileak ezin zuela bere borrokan indarkeria *edozein moduz eta inolako neurririk gabe* erabili. Pertsonaren duintasunari zor zaion *begiramenarekin* jokatu behar zuen beti, eta horregatik ezingo zituzten erabili tortura gisako metodoak, duintasuna *erabat urratzen duten bideak* ziren heinean.

Amaitzeko, zioten kontua ez zela aurrez erabakitzea ea biolentzia erabili behar den edo ez, abstraktuan. Baizik eta unean uneko egoera aztertu ostean, eta argi izanik ekintzaile ororen helburua —eta *ametsa*— izan behar zela biolentziarik gabeko gizarte bat eta askatasunean zein maitasunean oinarritutako mundu berri bat lortzea, erabakitzea zein bide jarraitu: Martin Luther King-ena edo Camilo Torres apaiz gerrillariarena.

- 8) **Beste eragileekin harremana eta antolakuntzaren eskala:** Kasu honetan, maila lokalean baino eskala nazional, estatal eta internazionalen zentratuko naiz. Alde batetik, Elizaren baitako beste mugimenduekin (adb. JOC edo VOJ) edo MIJARC (Movimiento Internacional de la Juventud Agraria y Rural Católica) gisako erakundeekin izandako harremanak izango ditut aztergai, gertakari nagusiak oinarri hartuta, eta,

bestetik, antolakuntzaren eskala eta borroka markoa:

- **1966:** JARCen Madrileko Komisio Nazionaletik idatzi bat jaso zuen Herri Gaztedik, MIJARCen deialdi batean parte hartzeko.

Mugimendua munduko herrialde guztietara zabaltzeko nahi zuten, munduko gazte guztiei *Kristoren argitasuna* eskaintzeko. Hori dela eta, Kongon ekimen bat antolatu zuten, eta *pixkat heldutako* ekintzaileei dei egiten zieten bertan parte hartzera.

- **1967:** Ordura arte, Espainiako JARCI *lotuta* zegoen Herri Gaztedi, baina ikusi zuten Euskal Herriak herri bezala bere nortasuna hobeki gordetzeko beharrezkoa zela *lotura* horietatik askatzea. Geroztik, ez zuten hartu-eman handirik izan JARCEkin.

Horrela azaltzen du Joanito Dorronsorok gertakari hura: "Ordura arte ibiltzen ginen JARCen, Espainia mailan. Gero, guk hautsi egin genuen Madrilera joan ginen batean:

«Espainiarekin gu oso diferenteak gara, eta guk aparte egin behar dugu, eta egin behar dugu euskeraz, Euskal Herriari begira»."

- **1969:** Irailean bilera bat hitzartu zuten JOC, VOJ eta Herri Gaztedi mugimenduetako zuzendaritzek, eta honako

gaiak jorratzea adostu zuten:

1. Mugimenduek Elizari buruz zeukaten eginkizuna.
2. Mugimenduek gotzaidi mailan zeukaten zuzendarien preparazioa.
3. Mugimenduen arteko lotura eta batasuna nola egituratzen has zitekeen.
4. Mugimenduek herriari dagokionez zeukaten zereginak.

- **1970:** Herri Gaztediko zuzendaritzak jakinarazi zien ekintzaileei aurrera zijoazela JOC eta VOJ mugimenduetako zuzendaritzekin bilerak. Hala ere, beharrezkoa ikusten zen hartu-eman horiek herrietan eta eskualdeetan ere sortzea, mugimendu ezberdinen arteko langintza *herriaren aurrean eraginkorragoa* izan zedin. Ordurako, hainbat herrietako (Donostia, Olereta, Irun eta Oiartzun) hiru mugimenduetako kideak elkartu ziren Santa Teresan, ideologia mailako ikasketa egin eta ekintzaileen artean posizio ezberdinak existitzen ziren edo ez ikusteko. Hartu-eman horiek jarraikortasuna izan zezaten, komisio bat sortu zen.

Beste alde batetik, urte horretan bertan argitaratutako beste idatzi batean, aipatzen zen lehen

Herri Gaztediko ekintzaile izandako pertsona batzuk atzerrian ari zirela ikasketak egiten, eta hartu-eman ugari izan zituztela European zehar MIJARCeko zuzendaritzako kideekin, eta Euskal Herriko arazoan berri emateko aukera izan zutela. Zentzu horretan, MIJARCen Asanblada Nagusiaren preparazio-bilera batera gonbidatuak izan ziren Herri Gaztediko kideak, modu sakonagoan azaldu ahal izateko Euskal Herriaren *arazoa*. Eta, gainera, MIJARCeko idazkaritzak, Belgikan zuen sedetik, eskaera egin zion mugimenduari dokumentu bat bidaltzeko, Euskal Herriaren egoera sozial, ekonomiko, politiko zein kulturala azalduz, eta situazio horren aurrean Herri Gaztediren postura nolakoa zen agertuz.

Horren ostean, Pazko Astean MIJARCek Estrasburgon ospatu zuen Asanblada Nagusira ere gonbidatu zuten Herri Gaztedi. Batzarrean Europako 33 eskualde ezberdinetako 280 gazte inguru batu ziren, eta Euskal Herritik zortzi ordezkari izan ziren bertan: Bizkaiko bi, Iparraldeko bi eta Gipuzkoako lau. Asanblada Nagusi horretan zehaztu zen mugimenduaren helburua izan behar zela gazteak iraultzarako eta sozialismorako hezitzea, *klase planteamentuan* oinarrituta. Herri Gaztedik,

mugimendu moduan, garrantzizkoa ikusi zuen jardunaldi horietan parte hartzea, arrazoi hauengatik: beste nazio zapalduetako kideekin elkartu eta bakoitzaren *gogo, ezin* eta *errealitateak* ezagutzeko; *munduko langile herrien* batasunaren alde jokatzeko; eta, azkenik, European konturatu zitezen Euskal Herria existitzen zela.

Batzar horretan eztabaidatu zen ea MIJARCen baitan Euskal Herriko mugimenduaren nortasuna onartu ala ez. Lurralde batzuetako ordezkarien oposizioaren ondorioz, botazio bidez honakoa erabaki zen: MIJARCen ofizialki ez sartzea, baina ordura arte izadako hartu-emanak izaten jarraitzea, eta biltzar zein bileretan parte hartzeko eskubidea edukitzea, baina botoa emateko eskubiderik gabe. Hori horrela, Kanadan ospatuko zen Biltzar Nagusira joan zitezen eskatu zieten Herri Gaztediko ordezkariei.

4. Heziketa mugimendutik beste plataforma batzuetara

Herri Gaztedik eta beste hainbat *mugimendu apostoliko kristau erradikalizatuk* berebiziko garrantzia izan zuten *ezker iraultzailea* delakoaren sorreran zein garapenean Euskal Herrian, edo behintzat espazio politiko mehar horren parte ziren elkarte horietan guztietan. Izan ere, argitu beharra dago ezker iraultzaileaz ari garenean ez diogula erreferentzia egiten korrante bateratu eta bakar bati, baizik eta erreferentzia ideologiko ezberdinetako hainbat talderi, elkarren artean lehian aritu zirenak. Talde horiek guztiek hainbat iturburutan izan zuten jatorria, baina Euskal Herrian eragin gehien izan zutenak aipaturiko mugimenduak izan ziren, ETaren *korronte obreristekin* batera.

Herri Gaztedi gisako mugimenduek elikatu zuten talde horietako bat, Zumaian zein Gipuzkoan garrantzi handia izan zuena, EKE (Ezker Komunista Erakundea; gazteleraz OICE, eta, 1977tik aurrera, OIC) izan zen. Hala ere, aitortu beharra dago EKEren sorreran berebiziko pisua izan zuten aurretiko esperientzien hazkundera, Langile Komiteak (gazteleraz *Comités Obreros*) edo NOC (*Núcleos Obreros Comunistas*) kasu, eragin eta inplikazio handia izan zutela mugimendu horretatik zetozen pertsonak.

70eko hamarkadaren hasieran, Herri Gaztedi erradikalizazio prozesu bat bizitzen ari zen, eta bide politiko baten beharra ikusten zuten mugimenduko ekintzaileek. Erradikalizazio horretan eragina izan zuen gertakari nagusietako bat, dudarik gabe, Burgosko prozesua izan zen. Justuki, hurrengo urtean, 1971n, hausnarketa-aldi sakon batean murgildu zen Herri Gaztedi, eta eztabaida termino hauetan planteatu zen:

- Klandestinitatean antolatzeko jauzi kualitatiboa egitea.
- Alderdi politiko edo mugimendu antolatu bihurtzea.

Hala ere, hirugarren aukera bat ere planteatu zen: ekintzaileek bide politiko bat bilatzea. Eta azken hori izan zen tesi nagusia. Konkretuki, honakoa izan zen hirugarren bide horrek adierazten zuena: Herri Gaztedik formazio militanterako gune bat eskainiko du, baina bide politikoa kanpoan bilatu beharko dute ekintzaileek.

Lehenago ere aipatu dugu Herri Gaztedi mugimendu ekintzailea izateaz gain, hezitzailea ere bazela. Konkretuki, barne-eztabaida eta -hausnarketa honen ondoren, berretsi egingo da bigarren aspektu horretan bereziki, bere burua heziketa mugimendu gisa

definituz. *Gazte: Erri Gaztedia. Ekintzaile guztien aldizkariaren* 31. zenbakian, 1972an argitaratutakoa, auzi honen inguruan arituko da luze eta zabala, “mugimendu barrukoen artean eta baita ere kanpokoen baitan (...) nahiko zarata” sortu zuen kontu bat baitzen. Horregatik, ale horren bitartez, ohartarazten ahalegindu ziren *plataforma* bakoitzak eginkizun ezberdinak eta konketuak zituela iraultza barruan, eta ez zirela funtzio horiek nahastu behar. Herri Gaztedi, zehazki, *plataforma lehena* bezala jotzen zuten, zeinaren xedea izan behar litzatekeen gazteak integraziorako eta alienaziorako bidetik atera eta beste bide bat markatzea zein zuzentzea: iraultzaren prozesua.

Hala ere, argi zuten iraultzaren bidera zuzentzea ez zela bi egunetako lana, eta horrek denbora-tarte bat eskatzen zuela, zeinetan gazteak heziketa mugimenduan murgilduta dauden eta prestaketa minimo bat garatzen duten maila guztietan. Era berean, beste *plataforma* eta estrategia batzuk ezagutzeko baliatu behar zuten gazteek garai hori, eta pixkanaka-pixkanaka beren opzioa edo aukeraketa egiten joateko. Azken pauso horri berebiziko garrantzia ematen zioten, behar bezala eman ez zen okasioetan hainbat posizio oker antzeman baitzituzten mugimenduan aritutako

ekintzaileen artean. Nagusiki bi ziren posizio horiek:

- 1) Heziketa mugimenduari berari ez zegozkion eginkizunak eskatzea. Adb. greba baten aurrean zer jokabide hartu galdetuz. Horren atzean zegoen arrazoi edo kausa nagusia, mugimenduaren ustetan, zen *plataforma* bakoitzaren eginkizuna ongi ez analizatzea edo ulertzea.
- 2) Mugimendua uzteko unea heldzean, non sartu eta zer egin jakin ez, eta ezer egin gabe gelditu. Kasu honetan, aldiz, aurretiko prozesua behar bezala ez eramatea identifikatzen zuten egoeraren zergati moduan. Justuki, konpromisoaren bidea ez ikustea zen huts egiten zuena, bide horren ondorena baita —edo izan behar luke, behintzat, mugimenduaren ustetan— ekintza.

Bigarren posizio horri lotuta maiz honako galdera sortzen zen: “noiz arte egon behar du ekintzaileak heziketa mugimenduan?”. Herri Gaztediko kideek zioten ez zegoela errezetarik horri buruz, ez zela erraza hori argitzea. Baina, era berean, prozesu logiko gisara irudikatzen zuten. Lehenik eta behin, gaztea lehen *plataforma* horretan sartzen da, eta bertan prestaketa minimo bat hartzen joan da maila guztietan. Jada mugimenduaren parte denean, beste *plataforma* batzuk ezagutzen

joango da eta, aldi berean, heziketa mugimenduak bultzatuta, borroka ezberdinetan murgiltzen joango da. Izan ere, borroka horiek ahalbidetuko diote ekintzaileari beste plataformak ezagutzea eta, horrela, pixkanaka-pixkanaka, bere hautaketa egiten joatea. Azkenengo pausoa litzateke gazteak heziketa mugimendutik ateratzen joatea, eta beste plataforma batzuetan sartzea. Momentu horretan bukatuko litzateke heziketa mugimenduaren eginkizuna gazte horiekiko.

Baina sekuentzia hori ximplea iruditu dakigukeen arren, mugimenduak oharrarazten zuen asko zirela *plataforma* batetik besterako bidean *erdi bidean* gelditzen zirenak. Horren aurrean, batetik, zioten denbora asko galdu izan zuela mugimenduak *deus eskaintzen ez zuten* ekintzaileekin eta, bestetik, aurrekoari lotuta, beharrezkoa zela *mota horretako* ekintzaileak ezagutzen joan eta gupidarik gabe *eliminatzea*.

Izan ere, heziketa mugimendu moduan ardura sentitzen zuten beste *plataformekiko*: langile mugimendua eta alderdi politikoak. *Plataforma* horiek, justuki, haiek bideratuko zizkieten ekintzaileen itxaropenetan zeuden, kuantitatiboki hazten jarraitzeko eta kualitatiboki sendotzeko. Talde bakoitzak ezin baitzuen hasi bakoitzak behar zituen gazteak hezitzen, eta hori zen, konkretuki,

Herri Gaztediri eskatzen ziotena: gazteak preparatzea borroka zail horretan sartzeko. Horregatik, mugimenduak uste zuen beharrezkoa zela posizio serioagoak hartzea, aurrez bizi izandako esperientzien bidez eskuratutako irakaspenak kontuan izanda. Ekintzaileek jasoko zuten prestakuntzari dagokionez, adierazten zuten teorikoa eta praktikoa izan behar zuela. Horretan berresten zen, beraz, heziketa mugimendua: bere bitarteko guztiak jartzean ekintzaileak beste *plataforma* batzuetan sar zitezen eta horiek indarra har zezaten.

5. Mugimenduaren desegitea eta honen legatua

Atal honetan, alde batetik, Herri Gaztediren desegitea bultza zuten arrazoiak izango ditut aztergai eta, bestetik, mugimenduaren transmisioari eta legatuari buruz arituko naiz.

5.1. Desegitea bultza zuten arrazoiak

Herri Gaztedi mugimenduaren desagerpenean influentzia izan zuten faktoreen artean, bi dira nagusiki ekintzaileek aipatzen dituzten faktoreak. Alde batetik, Elizaren babesaren auzia legoke, bi noranzkotan. Horren harira, azaltzen dute pixkanaka-pixkanaka mugimendua Elizaren babesa galtzen joan zela. Esaterako, 1972 eta 1979 artean Donostiako gotzain laguntzaile izan zen Jose María Setienek argi eta garbi adierazi zien ekintzaileei marxismoak haientzat ez zuela Elizan tokirik. Horrela, apurka-apurka Eliza bere lokalen erabilera eta bestelako baliabideak mozten hasi zen.

Bestetik, alderdien eta sindikatuen legalizazioa iristean jada galdu egin zuen pisua Elizaren babesaren beharrak, jada ez baitzen ezinbestekoa jardun politikoa aurrera eraman ahal izateko. Horrez gain, antolakunde berri hauen sorrerak eragin zuen bakoitza *bere saltsan* egotea, horien artean existitzen ziren diferentziek edo ñabardurek eraginda.

Izan ere, testuinguru horretan, zeinetan alderdi bakoitzak marxismoaren interpretazio edo korrante bat defendatzen zuen, ekintzaileek aipatzen dute jada ezin zela existitu Herri Gaztedi gisako mugimendu orokor bat.

5.2. Errelatoaren transmisioa gaur arte

Hilabete guzti hauetako nire esperientzian oinarrituta, Herri Gaztedi mugimenduaren berri izan nuenetik liburuxka hau aurkezteraino, ondoriozta nezake, orokorrean, Herri Gaztediren errelatoaren transmisioa gaur egunera arte ez dela apenas bermatu. Edo, behintzat, honakoa ez dela oso modu ordenatuan eta osatuan egin. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi haria guztiz galdu ez zedin ekarpena egin duten pertsonak, instituzioak edo ekimenak, besteak beste: Lazkaoko Beneditarren Fundazioko Juan Joxe Agirre eta Miren Barandiaran, *ahotsak.eus* ekimena eta, nola ez, liburuxka honen sorreran bere testigantzaren bidez nork bere aletxo jarri duen ekintzaileetako bakoitza.

Azken hauek ere bat datoz adieraztean, haien iritziz ere, ez dela behar bezala bermatu, hainbat arrazoi medio, Herri Gaztediren transmisioa ez Zumaia mailan ezta Euskal Herrian ere. Gehien

errepikatutako argumentuen artean, nabarmenduko nuke alderdi politiko eta sindikatuen sorrerak bigarren plano batean utzi zuela Herri Gaztedi. Guztiak bat datoz azaltzean Herri Gaztedik antolakunde horiei sekulako ekarpena egin ziela, eta baita gerora horietan parte hartu zuten militanteei ere, oinarriak ematean. Eta ziurrenik horien jarduna zein izaera ezin liteke ulertu Herri Gaztedik eta bertako ekintzaileek aurrez garatutako jardun politikoa gabe.

Hala ere, zoritxarrez, hein handi batean ahanzturan geratu da mugimendu honen jarduna, eta gaur egungo gazte belaunaldiek eta mugimendu politikoek ez dute jaso, kasualitatez ez bada, horren aipamen soil bat bera ere. Gure memoria, zentzu horretan, mugatua dela esan daiteke, eta kasu askotan trantsizioko alderdi eta sindikatueta soilik iritsi izan dela, baina ez dugu konstantziarik izan horien oinarrian existitu zela beste mugimendu bat, gure herrian oso errotuta egon zena.

5.3. Herri Gaztedik utzitako legatua

Atal honi amaiera emateko, Herri Gaztedi mugimenduak, 60ko eta 70eko hamarkadetan aurrera eramandako jardunaren bitartez, herri mailan zein eskala nazionalen utzitako legatuaz arituko naiz. Konkretuki, hiru arlo bereizi nahi izan ditut:

- Gizarte mailan: Gizarte mailan, orokorrean, Herri Gaztedi mugimenduak egindako ekarpen edo utzitako legatu printzipala, Paulo Iztuetaren esanetan, 70eko hamarkada hasieran Euskal Herrian hasitako sekulartze-prozesua izan zen, batez ere gazteriaren artean gertatu zena. Hala ere, esan behar da Herri Gaztedik prozesu horretan garrantzia handia izan arren, ez zela izan eragina izan zuen aktore politiko bakarra, langile mugimenduak eta antolakunde ezberdinek ere bere paper esanguratsua izan baitzuten. Iztuetaren arabera, oso garrantzitsua da nola hain klerikala eta sakonki klerikala zen gizartea aldatzen hasi zela, batez ere Burgosko prozesuaren testuinguruan, zeinetan hainbat euskal apaiz epaituak izan ziren. Ordura arte, adibidez, irekita zeuden Arantzazun eta beste hainbat komentutan eskolak, eta garai horretan hasi ziren ixten. Prozesu guzti horretan, gizartea bilakatu zen klerikala izatetik sekulartua izatera. Iztuetak dioenez, prozesua, ordea, ez zen harmonikoa izan, alderantziz, zenbait kasutan oso traumatikoa izan zen.
- Politika mailan: Herri Gaztedi mugimenduak, batik bat 60ko hamarkada amaieratik aurrera, ekarpen handia egin zuen Zumaia zein Euskal Herri mailan alderdi eta sindikatuen filak kuantitatiboki elikatzen eta

kualitatiboki indartzen, orain arte ikusi dugun moduan. Zentzu horretan, ekintzaile zumaia batek aipatzen zuen Herri Gaztedi *kabia* zela, arrautza ezberdin asko zituena. Hau da, hamarkada horietan Herri Gazteditik pasatako ekintzaile ugari alderdi, sindikatu edo bestelako antolakunde ezberdinetara igaro zen, eta kasu batzuetan aldi berean uztartzen zituzten bi militantziak. Besteak beste, herri bakoitzeko ezaugarri edo partikularitateak kontuan izanda edo garai bakoitzean mugimenduaren zuzendaritzan nor zegoen aintzat hartuta, honakoak izan ziren Herri Gaztediren kabian topatutako arrautza esanguratsuenak: ORT, EKE, ETako Fronte Kulturala, LAIA, EMK, Langile Komiteak, Comisiones Obreras, etab.

- Maila pertsonalean edo ekintzailean: Herri Gaztediko ekintzaile zumaia batak datoz mugimendu horretako partaide izatearen ondorioz eskuratu zuten irakaspen nagusia konpromisoarena izan zela adieraztean. Gainera, guztiek azpimarratu dute balio hori, mugimenduaren oinarri nagusiak ziren heziketa zein ekintzarekin estuki lotua dagoena, gaur egunerarte iritsi dela. Zentzu horretan, aitortu beharra dago ekintzaile izandako kide bakoitza izan dela konpromisoaren kulturaren igorle eta eroale, mugimendua desegin eta 50 urtera presente

egon dadila bermatu dutenak. Eta ez solik plano teoriko batean, batez ere plano praktikoko batean. Izan ere, oraindik ekintzaileak leku batean eta bestean ikusten dituztela eta elkarren artean topo egiten dutela diote: pentsiodunen borrokan, euskararen aldekoan, antzerkigintzan, ume lapurtuen aitortzan lanean, memoria historikoa berreskuratu nahian, etab.

Herri Gaztedin aritu ziren garaian barneratu zuten ideia nagusietako bat, justuki, izan baitzen pertsona bakoitzak une bakoitzean konprometitu egin behar duela. Adierazitako moduan, kausa eta problematika ezberdinak izan daitezke pertsona bakoitzaren edo testuinguruaren arabera, baina beti zerbaiten alde —edo aurka— borrokatzeko beharra sentitzen dute, *bestela badirudielako gure buruari huts egiten ari garela*. Hala ere, begirada gaur egunera ekarrita, adierazten dute jardun politikoa profesionalizatu egin dela erabat, eta ez dagoela apenas bolondresik. Hau da, ohitura militantea, konpromisoaren kultura, galtzen ari dela, eta jendeak *eskusa* gutxi behar duela argudiatzeko zergatik ez duen borroka egiten kausa baten edo bestearen alde.

Konpromisoarekin batera, ekintzaileek aipatzen duten beste legatu edo irakaspen nagusietako bat utopiaren ideiarena da. Haienetzat, utopia

helburu bat zen, ibiltzera behartzen zituena. Eta lortzen ez bazuten ere, bide bat egin behar izan zuten. Bide hori, haien hitzetan, erreala zen erabat eta, gainera, hurbildu egiten zituen helburuetara. Zulaikak, garai horretako testuinguruari begira, dio garaiko ekintzaileek nahi zutena *erreal politikoa* zela, eta horrek, era berean, lotura estua zuela ezinezko zenarekin. *Iraultzarenganako ezintasun* horren adibide eta erreferente ziren urte horietako ekintzaileentzat Parisko Komuna, 1917ko urria edo Txinako Iraultza Kulturala. Horrela, Zulaikak azaltzen du euskal belaunaldi gazte horrek bere burua tesitura horretan jarri zuela, bazelako zerbait ezinezko zirudiena baina borrokatzea merezi zuena.

6. Agurra

Rikardo Arregik zioen eguneroko borroka isila, izen handirik gabekoa, zela Euskal Herriaren eustailea. Hala ere, kontziente zen, seguru asko, gazte horien izenak ez zirela geldituko Euskal Herriaren historiaren orrietan, baina horiek egingo zutela posible inork baino gehiago Euskal Herriak historia izaten segitzea. Eta Herri Gaztediren kasuan, hein handi batean, bete da Arregiren profezia. Izan ere, Euskal Herriko memoria kolektiboaren baitan bigarren planoan geratu da erabat mugimenduaren historia, jarduna eta ekarpena. Horrek, ordea, ez du inolaz ere eragin behar mugimenduaren eta horren parte izandako ekintzaileen borroka isila albo batera uztea.

Kontrakoa, gure eginbeharra da historiaren hari gorritik tiraka jarraitzea, langileriaren borrokaren katetik, itzalpean geratu diren esperientzi politikoak argitara ateratzen ahalegintzea eta, iraganaren sakralizazioa edo nostalgia sustatzeko baino, eskuratutako irakaspenak etorkizun hobe bat marrazteko baliatzea, klase eta zapalkuntzarik gabeko jendartea ardatz. Iraultza posible zela sinistea ez ezik hura desio zuen eta mundu berri baten alde borrokan guztia eman zuen belaunaldiari egin diezaiokegun omenaldi onena haiek hasitako bidea jarraitzea delako.

7. Iturri bibliografikoak

Atal honetan, liburuxka osatzeko erabilitako iturri bibliografiko garrantzitsuenak jaso ditut, interesa duen orok gaian sakontzeko aukera izan dezan.

Lehen mailako iturriak¹¹

Gazte: Baserri Gaztedia

Gazte: Erri Gaztedia

Gazte: Erri Gaztedia. Ekintzaile guztien aldizkaria

Bertzetan¹²

Fedearen ekintzatasuna

Bestelako iturriak

Emilio López 'Beltza' – *El nacionalismo vasco en el exilio 1937-1960*

Imanol Satrustegi – *Atreverse a luchar. La izquierda revolucionaria y la transición en Navarra*

Imanol Satrustegi – *Beste mundu bat nahi genuen: Nafarroako ezker iraultzailea, 1970-1979*

Iñaki Gil de San Vicente eta Josemari Lorenzo – *Nacionalismo revolucionario: Hermanos etxebarrieta, Txikia, Argala*

Joel Sans – *Militancia, vida y revolución en los años 70: la experiencia de la Organización de Izquierda Comunista (OIC)*

Jokin Apalategi – *Los vascos, de la nación al Estado*

Jon Etxebarria – *La incidencia del movimiento eclesial Herri Gaztedi en el mundo rural vasco en la década de los 60*

Joseba Zulaika – *Aberriaren inpaseak*

Joseba Zulaika – *Itziar: biolentzia politikoaren ikuspegi etnografikoa*

Nerea Perez – *Langileria berri baten eraketa. Iruñerria 1956-1976*

Paulo Iztueta – *Eliz mugimenduak Euskal Herrian: Baserri Gaztediaren eta Eskualdun Gaztediaren kasua*

Paulo Iztueta – *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco: 1940-1975*

¹¹ Lazkaoko Beneditarren Fundazioan daude eskuragarri aipatutako dokumentuak.

¹² JOC (Juventud Obrera Cristiana) eta VOJ (Vanguardias Obreras Juveniles) antolakundeekin batera argitaratua.



*Ikuste genian Eliza aldatzen ari zala:
Vatikanoko II. Kontzilioa izan huan
hor, eta teologia berri bat sortzen hasi
huan. Konpromisoak hartu behar
hituan, eta gazteekin beste modu
batean hasi behar genian lanean,
hutsune bat baitzeon. Guk uste genian
marxismoa, klase burruka,
abertzaletasuna, kristautasuna eta
euskera lotu beharra zeudela. Ordura
arte, kristauak danak eskubitarrek
hituan, eta ezkertiar kristauak
zeudean sortu beharra.*